

BERRIOZARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN

JARDUTEA KOORDINATZEKO
I. TOKI-PROTOKOLOA

Elkartuta, **Berriozar** feminista baterantz



Pacto de Estado
contra la violencia de género



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE IGUALDAD



BERRIOZARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN JARDUTEA KOORDINATZEKO I. TOKI-PROTOKOLOA

SUSTATZAILEA:

BERRIOZARKO UDALEKO BERDINTASUNEKO ETA POLITIKA
FEMINISTAKO ARLOA.

FINANTZATZAILEA:

PRESIDENTZIARAKO, GORTEEKIKO HARREMANETARAKO
ETA BERDINTASUNERAKO MINISTERIOA,
BERDINTASUNERAKO ESTATU-IDAZKARITZAREN BITARTEZ.
GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO ESTATU-ITUNA.

LAGUNTZA TEKNIKOA:

PROTOKOLOA EGITEKO LAGUNTZA TEKNIKOA: ABELLA
LEGAL SL.
BERRIKUSPENA EGIN DUENA: BERRIOZARKO UDALEKO
BERDINTASUN ARLOA.

DATA:

PROTOKOLOA EGIN DEN DATA: 2021EKO URRIA.
PROTOKOLOA BERRIKUSI DEN DATA: 2024KO MAIATZA.



EZ NAIZ ONARTZEN ARI
ALDATU EZIN DITUDAN
GAUZAK; ALDATZEN ARI NAIZ
ONARTU EZIN DITUDANAK.

ANGELA DAVIS

AURKIBIDEA

1.	AURKEZPENA	5
2.	BERRIOZARREN DAUDEN BALIABIDE PUBLIKOEN AKORDIOA	9
3.	HELBURUAK	15
4.	PROTOKOLOAREN IZAERA, NORAINOKOA ETA APLIKAZIO-EREMUA	17
5.	ESPARRU ARAUEMAILEA	19
6.	EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTZEPTUALIZAZIOA	23
7.	ESKU HARTZEKO EREDUA ETA IKUSPEGIA	31
8.	KUDEAKETA-SISTEMAK	41
9.	ESKU HARTZEKO PROZEDURA, ZERBITZUEN ARABERA	45
	9.1. Osasun-etxean eta osasun mentaleko zentroan arreta espezializatua emateko argibide orokorrak.	72
	9.2. Baliabideen arteko koordinazioa.	74
	9.3. Toki publikoetan gertatzen den emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean jarduteko prozedura.	77
10.	PROTOKOLOA APLIKATZEKO ETA HARI JARRAIPENA EGITEKO TRESNAK	79
11.	JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-SISTEMA	83
12.	KOMUNIKAZIOA ETA ERANTZUN PUBLIKOA	87
13.	FINANTZAKETA, INTERPRETAZIOA, BERRIKUSPENA ETA INDARRALDIA	93
14.	SINADURAK	95
15.	BALIABIDEAK	97
16.	ERANSKINAK	103

BERRIOZARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN
JARDUTEA KOORDINATZEKO I. TOKI-PROTOKOLOA

AURKEZPENA



1. AURKEZPENA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EMAKUMEEN, HAURREN ETA NERABEEN GIZA ESKUBIDEEN URRAKETA LARRIA DA

Emakumeek indarkeriarik gabeko bizitza edukitzeko daukaten eskubidea ezin da bereizi beste giza eskubide batzuetatik eta haiekiko interdependentea da. Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak (hemendik aurrera, 14/2015 Foru Legea) atarikoan adierazten du emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen urraketa dela, generoko arrazoiengatiko diskriminazioan oinarritutakoa, eta funtsezko eskubideei eragiten diela, hala nola biziari, osotasun edo integritate fisiko eta psikikoari, osasun-maila handienerako eskubideari, tortura edo tratu umiliagarria ez pairatzeko eskubideari, bizilekua eta lana aske aukeratzeari, zeintzuek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren oinarritzko printzipioa ahultzen duten.

Emakumeen aurkako indarkeria emakumeen eta gizonen arteko berdintasunik ezaren agerpen muturrekoena da. Indarkeria horren agerpen desberdinak eta ematen zaizkion erantzunak gizarte- eta politika-eskema heteropatriarkal baten emaitza dira. Indarkeria honen iturria genero-diskriminazioa da, zeinak bat egiten duen egiturazko edo berariazko bereizkeriako beste faktore batzuekin eta ondorio suntsitzailea duen aurrez aurre duten emakume eta neskatoentzat, eta oztopo larria den haien garapen eta ongizaterako.

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) zenbatespen globalen arabera, gutxienez hiru emakumetatik batek (% 35) aurre egin behar izan dio bikotekideak eragindako indarkeria fisiko eta/edo sexualari edo bikotekidea ez den beste pertsona batek eragindako indarkeriari bere bizitzan zehar. Mundu osoan, 15 milioi neska nerabe baino zertxobait gehiago derrigortutako sexu-harremanak edukitzera behartu dituzte beren bizitzetako unerik batean. Eskola-ingurunean, hiru ikasle neska gaztetatik batek jazarpena pairatu du.

Oinarritzko Eskubideen Europako Agentziak (FRA) 2014an egin zuen inkestan, Europar Batasuneko emakumeen aurkako indarkeriaren kopuruak jaso ziren (EB-28): emakumeen % 7k (13 milioi) indarkeria fisikoa pairatu zuten, eta % 2k (3,7 milioi), sexu-indarkeria, inkesta egin aurreko 12 hilabeteetan. 9 milioi emakume inguru (15 urtetik aurrerakoak) jazarpenaren biktima izan ziren, eta % 13 eta % 21 artean (24 eta 39 milioi emakume artean gutxi gorabehera), sexu-jazarpenarena. EBko emakume guztien erdiak (% 53) zenbait toki edo egoera ekiditen saiatzen dira, gutxienez zenbaitetan, eraso fisikoen edo sexualen biktima izatearen beldur direlako.

Espanian, Genero Indarkeriarako Gobernu Ordezkaritzak 2019an egin zuen makroinkestaren arabera, Espainian bizi diren 16 urtetik gorako bi emakumetatik batek (% 57,3) indarkeriari aurre egin behar izan dio bere bizitzan zehar, emakume izateagatik. 11.688.411 emakume dira.

Espainian bizi diren 16 urtetik gorako emakume guztietatik % 13,7k (2.802.914 emakume) edozein pertsonak (une horretako bikotekidea, garai bateko bikotekidea edo bikote-harremanik eduki ez duten pertsonak) eragindako sexu-indarkeriari aurre egin behar izan diote beren bizitzan zehar eta % 1,8k (359.095 emakume), azken 12 hilabeteetan. % 6,5ek (1.322.052 emakume) bikote-harremanik ez duten edo eduki ez duten pertsonaren batek eragindako sexu-indarkeriari aurre egin behar izan diote aurre, eta % 0,5ek (103.487 emakume), azken 12 hilabeteetan. % 40,4k (8.240.537 emakume) sexu-jazarpenari aurre egin behar izan diote beren bizitzetako uneren batean, eta % 10,2k (2.071.764 emakume), azken 12 hilabeteetan.

Nafarroan, Genero Indarkeriaren aurka Gobernuaren Estatistika Atarian kaleratutako datuen arabera, 2019an, genero-indarkeriagatiko salaketak 2018an baino 1.957,70 gehiago izan ziren. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren (CGPJ) 2019ko Urteko Txostenak jasotzen du genero-indarkeriako emakume biktimen tasa % 58koa dela 10.000tik. 2019an, 393 babes-agindu eskatu ziren, eta haietatik 305 adostu ziren (% 78).

Nafarroako Berdintasunerako Institutuak 2020ko lehen hiruhilekoan egin zuen txostenak 328 salaketa jasotzen ditu guztira. 2019an, Iruñeko epaitegietan eskatu ziren babes-aginduak 251 izan ziren; hain zuzen, Foru Komunitateko babes-agindu guztien % 63,8. Berriozarko biztanleriaren arabera –10.000 biztanle baino zertxobait gehiago–, eta 2019ko makroinkestak agerian utzitako datuen arabera, 2.000 eta 10.000 biztanle arteko udalerrietan bizi diren emakumeen % 12,5ek bikotekideren baten indarkeria fisiko eta/edo sexualari aurre egin behar izan diote, eta % 27,6k, nolabaiteko indarkeria psikologikoari. Eta portzentaje horiek % 14,8 eta % 33,1 dira, hurrenez hurren, 10.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi diren emakumeen kasuan.

Hori dela-eta, datu horiek bizirik atera diren eta arreta behar duten emakumeen kopuru bat erakusten dutela jakitun, baina aldi berean udalerrian emakumeen aurkako indarkeria zuzenaren errealitate globalaren zati bat besterik ez dutela ordezkatzeko ohartuta –ez daude barnean sartuta arlo pertsonalean, familiakoan, lanekoan, kirolekoan, erakundekoan edo gizartekoan gertatutako beste indarkeria-mota batzuk, seme-alabek pairatzen dutena, edo indarkeria sinbolikoa eta egiturazkoa–, Berriozarko Udalak indarkeria lehentasunezko ardatz moduan hartzen du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaian, udal-politika publikoetan. Egun, Berriozarko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako III. Plana (2016-2023) onartuta du Udalak, eta bai Jai-eremuan sexu-erasoak prebenitzeko eta haiei arreta emateko toki-protokoloa (2017) ere.

Udalerrian garapen iraunkorra izateko euskarri moduan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburuarekin, Berriozarko Udalak Berriozarren emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean jardutea koordinatzeko I. toki-protokoloa egiteko eta abian jartzeko prozesua sustatu du, hauetarako tresna moduan:

- I. Inplikaturata dauden zerbitzu publikoetatik esku-hartze homogeneous, nahikoa eta integrala egitea ziurtatzea;
- II. Erakundeen arteko erantzun eta koordinazio espezializatua eta kalitatekoa indartzea (politikoa, teknikoa eta soziala).

14/2015 Foru Legeak oinarritzko eta berehalako betebeharrak batzuk ezartzen dizkie Nafarroako Administrazio Publikoari, bikotean edo bikotea izandakoan indarkeriari aurre egiteaz gain, generoan oinarritutako emakumeen aurkako beste indarkeria-modu batzuen aurrean ere neurriak hartzeko. Ildo beretik, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeak (hemendik aurrera, 17/2019 Foru Legea) adierazten du emakumeen eta gizonen arteko berdintasun benetakoa eta eraginkorra lortzean egiten den aurrerabide orok emakumeenganako indarkeria errotik ateratzean aurrerabidea ere ekarriko duela berekin.

Emakumeak, beste biktima batzuk eta bizirik atera direnak, adibidez, haien seme-alabak, indarkeriarik gabe bizi daitezela lortzeko baldintzak sortze aldera Protokoloa izenpetu duten alderdi guztiek hartu duten konpromisoa adierazten du dokumentu honek. Berriozarko Udalak espero du protokolo honek balio izatea emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta askatasuna sustatzeko neurri eraginkor eta benetako moduan, emakumeen ahalduntzean laguntzea eta emakume izateagatik aurre egin behar dieten indarkeria-mota guztiak errotik ateratzea.



Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun benetakoa eta eraginkorra lortzean egiten den aurrerabide orok emakumeenganako indarkeria errotik ateratzean aurrerabidea ere ekarriko du.



BERRIOZARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN
JARDUTEA KOORDINATZEKO I. TOKI-PROTOKOLOA

BERRIOZARREN DAUDEN BALIABIDE PUBLIKOEN AKORDIOA



2. BERRIOZARREN DAUDEN BALIABIDE PUBLIKOEN AKORDIOA

BERRIOZARREN, 2021EKO URRIAREN 8AN, BILDU DIRA

- » Raul Maiza González jauna, Berriozarko Udalaren ordezkartzan.
- » Eva Isturiz Garcia andrea, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren ordezkartzan.
- » Montserrat De la Fuente Hurtado andrea, Osasunbidearen ordezkartzan.
- » Emma Da Costa Moure andrea, Berriozarko Osasun Etxearen ordezkartzan.
- » Francisco Javier Vilchez López jauna, Antsoain, Berriozar, Berriobeiti, Itza eta Txulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen ordezkartzan.
- » Leire Arrieta Recondo andrea, Berriozarko DBHIren ordezkartzan.

Eta indarrean dagoen esparru arauemailean ezarritako betebeharrei jarraituta, edo haren garapen eta ongizaterako.

Protokolo hau berrikusi denean (2023), bertan parte hartu dute, gainera, Haur eta Gazteentzako Planak, GIBAITek eta Buztintxuriko Osasun Mentaleko Zentroak.

Hemendik aurrera, Mendialdea I eta Mendialdea II Lehen Hezkuntzako ikastetxeak eta Iruñalde Adineko Pertsonen Zentroa gonbidatu dira parte hartzera.

» Berriozarren emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeak eta bertako neskato, nerabe eta emakumeen aurkako indarkeria borrokatzeak lehentasuna izan behar du agenda politikoan.

AZALDU DUTE

LEHENIK. Emakume izateagatik egiten den diskriminazioan oinarritutako emakumeen aurkako indarkeria gure gizartean egiten diren giza eskubideen urraketa ohikoenetako bat da. Funtsezko eskubideei eragiten dieten urraketa horiek, hala nola biziari, osotasun edo integritate fisiko eta psikikoari eta osasunerako eskubideari, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren oinarritzko printzipioa ahultzen dute. Horrenbestez, gertatzen diren bitartean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erabatekoa eta eraginkorra gauzatzeke egongo den zeregina izango da.

BIGARRENIK. Emakumeen aurkako indarkeria egiturazkoa da, eta gizarte-antolaketa guztietan gertatzen diren emakumeen kontrako berdintasunik ezen eta bereizkerien sistemaren zati da. Izan ere, gizarte-antolaketa horiek, patriarkalak izatean, honetan oinarritzen dira: genero maskulinoak femeninoa menderatzen du eta haren aurrean nagusi da.

HIRUGARRENIK. Adinak, herritartasunak, etniak, dibertsitate funtzionalak, administrazio-egoerak, bizilekukoak emakume migratzaileen eta errefuxiatuen kasuan, pobrezia edo autonomia ekonomikorik ezak, diskriminazio interseksionaleko beste kategoria batzuekin batera, ekar dezakete indarkeria-egoerak areagotzea eta herritartasuneko eskubideak benetan gauzatzeko emakume askok duten posizioa eta egoera are eragozgarriagoa edo kaltegarriagoa izatea.

LAUGARRENIK. Emakumeen aurkako indarkeriak agerpen ugari ditu, haien artean, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria, sexu-indarkeriaren agerpen desberdinak, feminizidioa, emakumeen eta neskatoen salerosketa, sexu-esplotazioa, gazteegitan ezkontzea, ezkontza hitzartua edo derrigortua, emakumeen genitalen mutilazioa, eta emakumeen duintasuna, osotasuna edo askatasuna kaltetzen duen edo kalte dezakeen beste edozein indarkeria-mota, udal-mailan aplikagarriak diren eta indarrean dauden tresna juridikoetan aurreikusirik dagoena, hala nola: giza eskubideen nazioarteko tratatuak eta Europako, Estatuko eta Foru Komunitateko araudian.

BOSGARRENIK. Emakumeen aurka gauzatutako indarkeria-moduek, adierazitako agerpenetako edozeinetan, ondorio desberdineko kalte edo oinaze fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomikoak dituzte. Horrez gain, emakumeen aurkako indarkeriaren gizarte- eta ekonomia-kostua handi-handia da.

SEIGARRENIK. Emakumeen aurkako indarkeriari heltzeak diziplinarteko esku-hartzea eskatzen du, eta erakunde publikoak behartuta daude esku-hartze koordinatua sustatzera eta jarduteko prozedura homogeneoak ezartzera; hartara, arreta eta babes integrala bermatzeko, generoko ikuspegiarekin, gizartearen, hezkuntzaren, osasunaren, poliziaren, zuzenbidearen eta epaileen esparruetatik.

ZAZPIGARRENIK. Jarduteak gizartea benetan eraldatzea dakarrela jakitun eta, horrenbestez, jardute horrek emakumeei eman beharreko ezinbesteko arreta baino zabalagoa izan behar duela, beharrezkoa da erakundeek bateragarri egitea beren diziplina anitzeko babes-jarduera ikerketarekin, prebentzioarekin eta sentsibilizazioarekin, indarkeriaren detekzio goiztiarrekin, bizirik irauten dutenak guztiz errekueratu arte eman beharreko arreta osoarekin, eta bai kaltearen erreparazio banakako eta kolektiboarekin ere, ez errepikatzea eta ez birbiktimizatzea bermatuta.

ZORTZIGARRENIK. Erakundeen erantzuna beharrezkoa den ardurarekin jarduteko printzipioan kokatu behar da, eta gai honetan gutxienekoak diren estandarren arabera. Estandar horiek, hain zuzen, Foru Komunitateko, Estatuko, Europako eta nazioarteko araudiaren gorputz juridiko zabal batean bilduta daude, tokiko erakundeek eta udalez gaindiko erakundeek erabat bete beharrezkoa dena.

Aurretik azaldutako hori guztia aintzat hartuta, duten ordezkartzan esku hartu duten alderdiek

HITZARTU DUTE

LEHENIK. Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzean eta hari era integralean heltzean inplikaturik dauden erakundeen artean koordinazio eta elkarlan handiena eta onena lortzea, Berriozarren jarduteko jarraibide edo pautak homogeneoak ezartzea, hala, kalitateko arreta bermatzeko osasunaren, hezkuntzaren, gizartearen, poliziaren, zuzenbidearen eta epaileen esparruetan.

BIGARRENIK. Emakumeen aurkako indarkeria-ekintzak gertatu direla jakiten denean, jardutea egokitzea bai protokolo honetara eta bai Berriozarren eta Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dauden erakundearteko beste koordinazio-protokolo batzuetara.

HIRUGARRENIK. Bizirik ateratzen diren emakumeei arreta ematea, indarreko esparru arauemailean jasota dauden jarduketa-printzipioei jarraituta.

LAUGARRENIK. Baliabide eta zerbitzu nahikoak, eskuragarriak eta kalitatekoak edukitzea, emakumeen arreta osoa eta ez errepikatze eta birbiktimizatzeko neurriak bermatzeko, ahalduzko prozesu banakako eta kolektiboak indartzeko, eta erreparazio banakakoa eta kolektiboa bultzatzeko.

Zerbitzu horiek bermatu behar dute haiek eskuratu ahal izatea hizkuntza edozein izanda, dela bertako langileen, dela kanpoko hizkuntza-laguntzaren bitartez.

BOSGARRENIK. Emakumeen aurkako indarkeriaren agerpen zuzen, kulturalen eta sinbolikoen aurrean, gizartearen eta erakundeen arbuioa anplifikatzea, bai eta berdintasunik ezetik eta justiziarik ezetik eratorritako egiturazko indarkeria sistemikoaren agerpenen aurrean ere.

SEIGARRENIK. Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko prestakuntza-programa espezializatuak, progresiboak eta iraunkorrak eta/edo generoan espezializatutako prestakuntza sustatzea eta bermatzea, emakumeen aurkako indarkeriaren gaian eskumenak dituzten profesional guztiei eta bai bertako politikariei zuzenduta. Erakunde bakoitzak bermatu beharko du Berriozarko Koordinazio Mahaian modu teknikoan eta politikoan ordezkatzeko duen pertsonak gaikuntza nahikoa duela bere eginkizunak gauzatzeko, araudian exijitutako kalitate-estandarren arabera.

ZAZPIGARRENIK. Erakundeen artean koordinazioa eta elkarlana bermatzea eta protokolo honen helburuak lortzeko beharrezkoak diren elkarlan- eta lankidetzatresnak garatzea, bereziki beste zerbitzu publiko batzuekin eta emakumeen eskubideei arreta ematen eta haiek defendatzen aritzen diren gizarte zibileko erakunde espezializatuekin, berariaz, dibertsitate funtzionala, etnia, jatorria, adina, mendekotasunak, hezkuntza-maila eta abar aintzat hartuta lan egiten dutenekin.

ZORTZIGARRENIK. Protokolo honen zabalkundea, inplementazioa, jarraipena eta ebaluazioa egiteko beharrezkoak diren baliabide materialak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak bideratzea, bertako helburuak eraginkortasunez betetze aldera, eta protokoloa indarrean dagoen bitartean egiten diren bileretan eta prestakuntza-saioretan parte hartzea.

BEDERATZIGARRENIK. Jarduteko protokoloaren edukiak zabaltzea berau izenpetu duten erakundeetako bakoitza osatzen duten edo haren mende aritzen diren langileen artean, eta betetzen dela ziurtatzea.

HAMARGARRENIK. Emakumeek bereizkeriarik ez jasateko eta berdintasunerako duten eskubidearen eraginkortasuna bermatzea, edozein inguruabar eta baldintzatan, beharrezkoak diren oztupoak mugiaraziz eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izan dadin lortzeko baldintzak sustatuz.

HAMAIKAGARRENIK. Berriozarko emakumeen aurkako indarkeriaren forma eta toki guztiei buruzko ezagutzen oinarria ikertu, aztertu eta indartzean laguntzea.

HAMABIGARRENIK. Protokolo honek sinatzen den egunetik aurrerako eragina izango du, eta balio mugagabea edukiko du. Urtero berrikusiko da, eta kanpoko ebaluazio baten mende egongo da lau urtean behin.



BERRIOZARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN
JARDUTEA KOORDINATZEKO I. TOKI-PROTOKOLOA

HELBURUAK



3. HELBURUAK

Protokolo honen helburu nagusia da emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean esku hartzen duten erakunde guztien eta Berriozarren presentzia duten agente guztien esku-hartze globala, koordinatua, espezializatua, integrala, kalitatekoa eta ikuspegi feminista duena bermatzea.

Lortu nahi dituen **BERARIAZKO HELBURUAK** hauek dira:

- ∞ Komunikazio- eta koordinazio-sistema bat sortzea esku hartzen duten erakundeen artean, erantzun homogeneoa, kalitatekoa, eta Berriozarren indarkeriari aurre egin behar dioten emakumeen ezaugarri indibidual eta kolektiboetara egokitua ematen lagunduko duena.
- ∞ Erantzun indibidualizatua ziurtatzea, denboran, eskuragarria, bizirik irauten duten emakumeen eskubideak lehengoratzeko dituen eta biktimizazio sekundarioa ekidingo duena.
- ∞ Emakumeen aurkako indarkeria prebenitu eta detektatzea bizitzaren alderdi guztietan Berriozarren, hezkuntza-komunitatetik eta hezkuntza-komunitatearekin, eta bai familiaren, lanaren, kirolaren eta gizartearen inguruneetan ere.
- ∞ Berriozarren emakumeen aurkako indarkeriak duen eraginari buruzko benetako informazioa, eguneratua eta konparagarria edukitzea, hari heltzeak eskatzen dituen hobekuntzak identifikatuta eta haiei bidea emanda.
- ∞ Esku-hartze profesionalaren eta baliabideen esku-hartzearen norainokoa eta eraginkortasuna hobetzea, emakumeen ahalduntze indibidual eta kolektiboaren ikuspegi batetik.
- ∞ Gaitzespen publikoa adieraztea, Berriozarko herritarrak sentsibilizatzea emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean eta emakume guztiek indarkeriarik gabeko bizimodua edukitzeko daukaten eskubidea hedatzea.



Erantzun homogeneoa, kalitatekoa, eta Berriozarren indarkeriari aurre egin behar dioten emakumeen ezaugarri indibidual eta kolektiboetara egokitua.

BERRIOZARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN
JARDUTEA KOORDINATZEKO I. TOKI-PROTOKOLOA

PROTOKOLOAREN IZAERA, NORAINOKOA ETA APLIKAZIO-EREMUA



4. PROTOKOLOAREN IZAERA, NORAINOKOA ETA APLIKAZIO-EREMUA

Protokolo honekin, Berriozarko Udalak beste pauso sendo bat eman du, genero-indarkeriari aurre egin behar dioten emakumeei arreta era koordinatuan eta homogean emateko eta hari heltzeko hartuak dituen konpromisoetan. Protokolo hau egiteko prozesua izenpetu duten erakundeen parte-hartzean oinarritu da. Hartara, 2019an, batetik, esparru desberdinetan arreta emateko zerbitzuekin lotutako langile teknikoak gaitzeko prozesu bat egin zen, eta, bestetik, paraleloki, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan Berriozarren zeuden egoerari eta beharrei buruzko diagnostiko bat.

Lehen protokolo honek Berriozarren ikusitako errealitatea jasotzen du, eta elkarlanerako abiaburu moduan ezartzen du "genero-indarkeria", bikote-harremanen, bikote-harreman izandakoen edo afektibitate-harreman antzekoen esparruan gauzatutako indarkeria. Progresiboki, emakume izateagatik emakumeen aurka egiten den indarkeria gertatzen den toki eta indarkeria-modu guztiak sartzen joan behar da, gizartearen aldaketetara eta esparru arauemaile indardunera egokituz. Horretarako, Koordinazio Teknikoko Mahaiak (KTM) urtero erabakiko ditu protokoloan berriaz jorratzen eta sartzen joango diren emakumeen aurkako indarkeria-modu eta -esparru desberdinak.

Beraz izenpetu duten erakundeei zuzenduta dago protokolo hau, eta bai aurrerantzean berarekin bat egin nahi dutenei ere. Emakumeen elkarteekin eta, oro har, berdintasunaren aldeko egitura asoziatiboarekin hurrengo urteetan koordinazio-mekanismoak sustatzeko nahia du, borroka honetan egin duten ibilbidea aitortzen baitie. Izan ere, emakumeen giza eskubideen aldarrikapena agenda politikoan sartzeari lortu dute, eta bai erakundeek arlo honetan duten erantzukizuna beren gain har dezaten trazio-elementua izatea ere.

“ Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan erabilitako terminologia da genero-indarkeria.

BERRIOZARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN
JARDUTEA KOORDINATZEKO I. TOKI-PROTOKOLOA

ESPARRU ARAUEMAILEA



5. ESPARRU ARAUEMAILEA

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako araudian, eta, bereziki, emakumeen aurkako indarkeriarenean, ezarrita dauden estandar juridikoekin bat datorren tresna da protokoloa.

NAZIOARTEKOA

- ∞ Nazio Batuen Gutuna (1945). Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala (1948).
- ∞ Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Ituna (1966).
- ∞ Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Ituna (1966).
- ∞ Emakumeen aurkako diskriminazio-modu guztiak ezabatzeari buruzko hitzarmena (CEDAW, 1979).
- ∞ Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteari buruzko deklarazioa (1993).
- ∞ Beijingo Deklarazioa eta Ekintzarako Plataforma (1995; +25).
- ∞ Emakumeen aurkako indarkeria-forma guztiei buruz idazkari nagusiak egindako azterlan sakona.
- ∞ Nazio Batuen Batzar Nagusiaren ebazpenak emakumeen aurkako indarkeria-modu guztiak desagerrarazteko ahaleginak areagotzeari buruz, emakumeen eta neskatoen salerosketa desagerrarazteko, eta emakumeen genitalen mutilazioa desagerrarazteko mundu-mailako ahaleginak areagotzeari buruz.
- ∞ 2030 Agenda. 5. helburua: genero-berdintasuna lortzea eta emakume eta neskato guztiak ahalduntzea.

ERKIDEGOKOA

- ∞ Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna (2012).
- ∞ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/36 Zuzentaraua, apirilaren 5ekoa, gizakien salerosketa prebenitzeari, horren kontra borrokatzeari eta biktimak babesteari buruzkoa.
- ∞ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/92/EB Zuzentaraua, 2011ko abenduaren 13koa, adingabeen aurkako sexu-erasoen, sexu-esplotazioaren eta haur-pornografiaren aurkako borrokatzeari buruzkoa. Zuzentaru horrek Kontseiluaren 2004/68/JAI Esparru Erabakia ordeztu du.
- ∞ Emakumeen genitalen mutilazioa desagerrarazteko Europako Parlamentuak 2012ko ekainaren 14an hartu zuen Ebazpena.
- ∞ Europako Parlamentuak 2014ko otsailaren 25ean hartu zuen Ebazpena, emakumeen aurka gauzatutako indarkeria borrokatzearen gainean Batzordeari bideratutako gomendioak jasotzen dituena.
- ∞ Genero Berdintasunerako Europako Estrategia 2020-2025 aldirako.

EUOPAR KONTSEILUKOA

- ∞ Giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak babesteko Europako hitzarmena (ECHR), Europako Kontseiluarena.
- ∞ Haurrak sexu-esplotaziotik eta -gehiogikeriatik babesteko hitzarmena, 2007ko urriaren 25ekoa (Lanzaroteko Hitzarmena).
- ∞ Emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta borrokatzeko Europako hitzarmena, 2011koa (Istanbulgo Hitzarmena).

ESTATUKOA

- ∞ Espainiako Konstituzioa.
- ∞ Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa.
- ∞ Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorra lortzeko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.
- ∞ Genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna garatzeko presako neurriei buruzko abuztuaren 3ko 9/2018 Errege Lege Dekretua.
- ∞ 1023/2020 Errege Dekretua, azaroaren 17koa, genero-indarkeriaren arloko estatu-itunean toki-erakundeei erreserbatutako eskumen berriak edo zabalduak garatzeko transferentzien zenbatekoak, irizpideak eta banaketa-prozedura eguneratzen dituena.
- ∞ Genero-indarkeriaren biktimak babesteko eta haiei laguntzeko presako neurriei buruzko martxoaren 24ko 1/2021 Legea.
- ∞ Genero Indarkeriaren eta Etxeko Indarkeriaren Kodea.
- ∞ Sexu-askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoa.

FORU KOMUNITATEKOA

- ∞ Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea.
- ∞ 3/2018 Foru Legea, apirilaren 19koa, Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea aldatzekoa.
- ∞ Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legea.

Azken urteetan foru-politikan onartu diren tresna batzuk:

- ∞ Nafarroan emakumeen genitalen mutilazioaren aurrean jarduteko eta hura prebenitzeko protokoloa (2013).
- ∞ Udaletako Berdintasun Arloen lana planifikatzeko, kudeatzeko eta ebaluatzeko Nafarroako Gobernuaren ibilbidea (2015).
- ∞ Sexu-esplotaziorako helburuak dituen salerosketako biktima izan diren emakumeekin eta neskatuekin jarduteko eta lan hori koordinatzeko Nafarroako protokoloa (2016).
- ∞ Nafarroan emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean batera jarduteko protokoloaren profesionalentzako gida (2018).
- ∞ Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean jardutea koordinatzeko toki-protokoloak egiteko gida (2018).
- ∞ Nafarroan emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean koordinatzeko erakundeen arteko III. akordioa (2017).
- ∞ 2016-2021 aldirako Ekintza Plana, Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea garatzen duena.



Emakume izateagatik egiten den diskriminazioan oinarritutako emakumeen aurkako indarkeria gizarte garaikideetan egiten diren giza eskubideen urraketa ohikoenetako bat da.

BERRIOZARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN
JARDUTEA KOORDINATZEKO I. TOKI-PROTOKOLOA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTZEPTUALIZAZIOA



6. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTZEPTUALIZAZIOA

Protokolo honek “emakumeen aurkako indarkeria” terminologia erabiltzen du; 14/2015 Foru Legean, Istanbulgo Hitzarmenean eta gai honetan indarrean dauden giza eskubideen nazioarteko estandarretan jasotakoa, hain zuzen.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Emakumeen aurkako indarkeria da emakume izateagatik emakumeen kontra bideratzen dena edo haiengan proportziorik gabeko eragina duena, genero-diskriminazioaren agerpen gisa eta emakumeentzako kalte edo oinaze fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa dakarrena edo ekar dezakeena, mehatxuak, beldurrarazteak eta hertsatzeak edo askatasun-gabetze arbitrarioak barne hartuta, bizitza publikoan nahiz pribatuan gertatzen direnak.

Generoarengatiko emakumeen aurkako indarkeria emakumeak gizonarekiko duen mendeko posizioa eta bere eginkizun estereotipatuak iraunarazten dituen bitarteko sozial, politikoa eta ekonomikoa funtsezkoetako bat da. Mota honetako indarkeria botere hegemoniko maskulino bat gauzatzea indartzen duten arau sozialekin lotutako faktoreetan errotuta dago.

Patriarkatuak rol eta estereotipo batzuk esleitu dizkie emakumeei eta gizonei, sexua-generoa sistemaren barnean kokatuta, eta haiek balorazio ezberdina eta hierarkia ematen dute. Esleitutako eginkizunak eta hierarkia hori urratzeak berekin dakartza zigor batzuk (indarkeria sinbolikoa), zeinak maila globalean balioa kentzen dion eta kritikatu egiten duen ezarrira dagoen eredu haustea esan nahi duen hori guztia, eta berariazko mailan, arau horiek zalantzan jartzen dituzten edo beretzat hartzen ez dituzten emakumeen sektoreak laidoztatzen dituen. Indarkeria honek tolerantzia handia du gizartean, kulturen sartuta dagoelako eta onartzen delako.

Egungo proposamen feministek subjektu politikoa, sexu/genero harremana, beste zapalkuntza/menderatze kategoria batzuk kontzeptuak nomenklaturan sartzea iradokitzen dute, eta bai indarkeriaren agerpen desberdinak eta indarkeria hori gauzatzen den tokiak ere. Indarkeria matxistaren beste forma hauek deskribatu egiten dira, baina ez zaie xeheki heltzen eta ez dira aurkeztutako jarduketako koordinatuaren barnean sartzen protokolo honetan, gutxienez, hasiera batean.

14/2015 Foru Legearen 6.d artikulua diskriminazioaren debekua ezartzen du:

“Erakunde publikoek bermatu egingen dute foru lege honetan aurreikusitako neurriak aplikatuko direla inolako diskriminaziorik gabe, hain da, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, iritzia politikoa edo beste edozein, jatorri nazionala edo soziala, gutxiengo nazional bateko kide izatea, gaitasun ekonomikoa, sexu joera, genero identitatea, adina, osasun egoera, desgaitasuna, egoera zibila, migratzaile estatua edo egoitzaren egoera administratiboa edozein izanik ere”.

Hala, lehen protokolo honen babes-subjektuak emakumeak dira (barne hartuta neskatoak eta nerabeak), jarraian zehaztutako tokietan eta moduetan gizon batengandik datorren indarkeriari aurre egiten diotenak edo egin diotenak, bai eta emakume horien kontu dauden adingabeak ere, egokia den kasuetan, biktima zuzenak diren heinean.

14/2015 Foru Legeak titulu-sorta handia hartzen du barne indarkeria egiaztatzeko, bai judzialak eta bai beste batzuk ere salaketarik ez dagoen kasuetarako, eta, ondorioz, epailearen prozedurarik ez dagoena zabalik.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Indarkeriatik bizirik atera direnak dira jasandako indarkeria-prozesua gainditzeko oneratzeko-prozesuari ekin dioten emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak. Indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak ere biktima zuzenak eta/edo indarkeria horretatik bizirik atera direnak dira. Arreta emateko eta oneratzeko baliabideek eta zerbitzuek mesede egingo diete bai emakumeen kontrako edozein eratako indarkeriatik bizirik iraun duten emakume adindun eta adingabeei, eta bai haien guraso-ahalaren, zaintzaren edo tutoretzaren menpe dauden pertsona adingabeei edo, kasua bada, biktima den emakumearekin bizi diren eta desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsona adindunei ere.

Biktima hitzaren erabilerak Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideari erantzuten dio. Eskubide zibilak gauzatzearen isla da, zigorgabetasuna ekiditeko xedearekin, sufrimendua aitortuta, eta eragindako kalteen erreparazio- eta justizia-beharra ikusgai egiten du. Nazioarteko estandarretan (Delituen eta botere-abusuaren edo nagusikeriaren biktimentzako justizia-printzipio oinarritzoei buruzko deklarazioa, Nazio Batuen, 1985eko, eta Istanbulgo Hitzarmena) eta Delituen Biktimaren Estatutuaren Legean, erabilera zabalagoa egiten da, delitu bat jasan duen eta egoera egiaztatu edo frogatu ahal duten erakundeekin harremana hartzen duen pertsona baita biktima.

14/2015 Foru Legearen 4. artikulua hauek hartzen ditu emakumeen aurkako indarkeriaren biktimatzat: “foru lege honetan aurreikusitako bortxazko ekintzen ondorioak zuzenean pairatzen dituzten emakumeak, bai eta indarkeriazko ingurunean bizi diren seme-alabak ere, egoera ahulean egoteagatik indarkeria hori zuzenean jasaten dutenak”.

Horrez gain, indarkeria frogatzeko hainbat modalitate hartzen ditu barne, esate baterako:

- a)** Emakumeak indarkeria jasan zuela adierazten duen epai irmoa, edozein maila jurisdikzionaletakoa.
- b)** Biktima babesteko kautelazko neurriak hartzeko erabakia hartu duen babes-agindua edo ebazpen judiziala, indarra duena.
- c)** Indarkeria-zantzuak daudela adierazten duen txostena, fiskaltzak egina.
- d)** Aginte polizialaren akta, kasuan kasuko emakumea giza salerosketaren biktima dela esateko arrazoizko zantzuak daudela frogatzen duena, sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen salerosketaren kasuetan.
- e)** Administrazio publiko eskudunaren gizarte- eta/edo osasun-zerbitzuen ziurtagiria eta/edo txostena.
- f)** Administrazio publiko eskudunaren harrera-zerbitzuen ziurtagiria eta/edo txostena.
- g)** Lan Ikuskaritzaren eta Gizarte Segurantzaren txostena, lan-esparruan gertatzen diren sexu-jazarpenaren kasuetan eta sexuak eragindakoetan.
- h)** Legezko izaera duen arau bidez ezarritako beste edozein.

Halaber, frogarako bide horiek baliagarriak izango dira indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alaben biktima-izaera frogatzeko, kasua denean.

BIKTIMAK ETA BIZIRIK IRAUN DUTENAK

Jardun profesionalean aintzat hartu behar da biktima hitza erabiltzeak berekin ekar dezakeela estigmatizazio handiagoa, jarrera pasiboa bultza dezakeela, eta, hori dela-eta, beste adierazpide batzuk erabili ohi dira, hala nola “indarkeriari aurre egiten dioten emakumeak” edo “bizirik atera direnak”. Adierazpide horiek emakumeen ahalduntzea sustatzen dute eta haien aurkako indarkeriarik gabeko bizitza edukitzeko mezua helarazten dute.

Beste alde batetik, erasotzailatzat hartzen da indarkeriazko jokaera hedatzen duen gizona, nerabea edo mutikoa.

Garrantzitsua da aitortzea azken urteetan zabaldu diren diskurtso neomatxistek –“salaketa faltsuak” eta emakumeen ustezko mendeko-ekintzen aurrean gizonen zaugarritasuna nabarmentzen dituztenak– eragin handia izan dutela emakumeen aurkako indarkeriaren benetako alderdiei eta garrantziari buruz herritarrek duten pertzepzioan. Hori dela-eta, biktimaren kontzeptuak garrantzitsua izaten jarraitzen du, beren giza eskubideak urratzen ari zaizkienak emakumeak direla azpimarratzeko.

INDARKERIAREN AGERPENAK

Emakumeenganako indarkeria-ekintzak menderatze-dinamiketan oinarritzen dira, eta haien agerpen zehatzetako batzuek hauek hartzen dituzte, besteak beste:

1. **Indarkeria bikotean edo bikote ohian:** indarkeria fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa edo sexuala, bikotekide duen edo izan duen gizonak edo berarekin antzeko harreman afektiboak izan dituenak, batera bizi direla nahiz ez, emakumearen kontra erabilitakoa, indarkeriazko ingurunean bizi diren haurren duen eragina barne hartuta.
2. **Sexu-indarkeriaren** agerpen ezberdinak: emakume eta nesken kontrako sexu-indarkeriak bere baitan hartzen ditu sexu-erasoa, sexu-abusua, sexu-jazarpena lanean edo hezkuntzan eta sexu-abusua familian, komunitatean, hezkuntzan, lanean eta esparru publikoan.
3. **Feminizidioa:** bikotean edo bikote ohian eginiko homizidioak, eta generoak eragindako diskriminazioan oinarritutako indarkeria erakusten duten beste krimen batzuk, hala nola sexu-indarkeriarekin loturiko hilketak, prostituzioaren eta emakumezkoen salerosketaren eremuko hilketak, ohoreagatiko hilketak, neskatoen infantizidioa eta ezkonsariagatiko hilketak.

4. **Emakumeen eta nesken salerosketa:** emakumeak eta neskak erakarri, eraman, lekuz aldatu, hartu edo jasotzea, barne hartuta pertsona horien gaineko kontrola trukitzea edo eskualdatzea, mehatxuekin edo indarra edo bestelako hertsamen bideak erabiliz, bahituz, iruzur eginez, engainatuz, botere-abusuaren bidez edo egoera ahul batez baliatuz, edo emakume edo nesken gaineko kontrola duen pertsonaren baimena lortzeko dirua edo onurak emanaz edo jasoz, helburua izanda sexu-esplotazioa, laneko esplotazioa edo menpekotasunezko ezkontza.
5. **Sexu-esplotazioa eta/edo prostituzioa:** emakumeak eta neskak prostituzioan, sexu-morrontzan edo beste sexu-zerbitzu batzuetan aritzetik, ekintza pornografikoak edo material pornografikoak egitea barne, finantza-onurak edo bestelakoak lortzea, bortxaz, mehatxuaz, engainuaz edo nagusitasunezko egoera batez edo biktimaren egoera ahulaz baliatuz.
6. **Gazteegitan ezkontzea, ezkontza hitzartua edo derrigortua:** baimen libre eta erabatekorik izan ez duen ezkontza, hirugarrenen edo beste batzuen arteko akordio baten emaitza izan delako, emakumearen borondatea kontuan hartu gabe, edo mehatxupearan edo bortxaz egiten delako, edo baimena emateko legez aurreikusitako adina baino gazteagoa delako emakumea.
7. **Emakumeen genitalen mutilazioa:** emakumearen genitalak osorik edo zati batean kentzea dakarren edo ekar dezakeen edo haietan lesioak eragiten dituen edozein prozedura, emakumearen edo nesken baimena izanda ere, berariazkoa nahiz esan gabekoa.

Emakumeen duintasuna, osotasuna edo askatasuna kaltetzen duen edo kalte dezakeen beste edozein indarkeria-mota, nazioarteko itunetan, Espainiako Zigor Kodean edo Estatuko edo Foru Komunitateko araudian aurreikusirik dagoena.

”

Munduan, hiru emakumetatik batek indarkeria sexuala edo fisikoa pairatzen du, kasu gehienetan, bikotekideak eragindakoa.

NBE EMAKUMEAK

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA ZUZENAREN MOTAK EDO FORMAK

1. **Indarkeria fisikoa:** emakumearen gorputzaren kontrako indarkeriazko edozein ekintza, kalte fisikoa edo mina eragiten duena edo eragin dezakeena. Eraso fisikoak izan ohi dira, adibidez, kolpeak ematea, jotzea, ebakitzea, ziztatzea, erretzea eta abar. Indarkeria-modu honetan, emakumeentzako arrisku handieneko egoerak gertatzen dira, non haien osotasun fisikoa arriskuan egon daitekeen eta hiltzeko arriskuan egon daitezkeen. Laguntza ez ematea ere barne hartzen du, nahita eginda edo arduragabe jokatzegatik, lesio fisikoa edo kaltea eraginez edo eragiteko arriskuarekin.
2. **Indarkeria psikologikoa:** edozein jokabide, ahozkoa nahiz ez ahozkoa, emakumearengan oinaze, gutxiespen, bakartze-motaren bat edo askatasuna mugatzea eragiten duena, hala nola mehatxuak, derrigortzeak, umilazioak edo laidoak, menpekotasuna eskatzea, jazarpena, hertsapena edo irainak. Indarkeria psikologikoak osotasunari eta duintasunari eraso egiten dio, eta bere ondorioak gainditzen zailak izaten dira, emakumeen autoestimua urritzen baitoaz.
3. **Indarkeria ekonomikoa eta ondarezkoa:** emakumearen eta haren seme-alaben ongizate fisiko nahiz psikologikorako baliabideak nahita eta legez justifikatu gabe kentzea, edo bikotearen esparruan bienak diren baliabideak erabiltzeko diskriminazioa: bankuko kontuetara sartzea mugatzea, elikagaien pentsioa, pentsio konpentsatzailea, hipoteka... ordaintzeko betebeharra borondatez ez betetzea.
4. **Indarkeria sexuala:** onartu/baimendu gabeko edozein sexu-ekintza, indarkeria, mehatxua, nagusikeria edo manipulazio emozionala tarteko direla, sexu-harremanak erakutsi, ikusi edo izatera behartzea barne. Gizarte-arloan, familiakoan eta bikotekoan gauzatzen da, eta gizonak emakumeen aurkako botere- eta abusu-tresna gisa erabiltzen dute. Azkenaldian, sumisio kimikoa emakumeen sexu-askatasunaren kontrako delituak egiteko erabiltzen ari da.
5. **Indarkeria obstetrikoa eta sexu- eta ugalketa-eskubideen beste urraketa batzuk.**
6. **Indarkeria instituzionala:** funtzionarioek eta/edo erakunde publikoren bateko langileek gauzatutako atzerapen-, oztopo- edo eragozpen-jarduketei dagokie, legean jasota dauden eskubideak eskuratzea eta benetan eta eraginkortasunez gauzatzea mugatuz.
7. **Emakumeen duintasuna, osotasuna, intimitatea, irudi propioa, ohorea edo askatasuna urratzen duten edo urra dezaketen** indarkeriazko beste mota antzeko batzuk.



Auzitegi Gorenak, 2021eko martxoaren 17ko Epaian, indarkeria ekonomikotzat jo zuen seme-alaben elikagaien pentsioa ez ordaintzea, betebeharraren eta legezkoaren kontrako beharrezan uztean seme-alaba horiek.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA GAUZATZEN DEN GUNEAK

1. **Indarkeria bikotearen edo bikote ohiaren esparruan.** Emakumeengan gauzatutako indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa, eta bere ezkontidea denak edo izan denak edo afektibitateko antzeko harremanengatik lotutako pertsona denak edo izandakoak eragindakoa.
2. **Familiaren esparruko indarkeria.** Indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa, familiaren barruan kontrol-, eraso-, arbuio- edo bazterketa-mota desberdinetatik gauzatutakoa.
3. **Lanaren esparruko indarkeria.** Indarkeria fisikoa, sexuala edo psikologikoa, lantokian eta lanaldian gerta daitekeena eta bai kanpoan ere, baldin eta lanarekin lotuta badago. Forma ugari ditu, adibidez, sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena.
4. **Gizartearen edo komunitatearen esparruko indarkeria.** Aisiarako tokiak, asoziazionismokoak, kulturakoak eta abar hartzen ditu barne.
5. **Hezkuntzaren esparruko indarkeria.** Ikastetxe bateko ikasle mutil batek ikasle neska baten aurka egindako indarkeria hartzen du barne, edo ikastetxeko langileetako kide batek egindakoa, edo senitarteko batek edo ikastetxeko langileen artekoa ez den pertsona batek egindakoa, eta bai langile emakume baten edo ikasle baten amaren aurka egindakoa ere.
6. **Kirolaren esparruko indarkeria.** Esparru hau tradizionalki maskulinoa izan da, eta bertan oraindik ere irauten dute emakumeen kontrako bereizkeria-jardunbideek, bai kirolari emakumeen kontra, eta bai beste eginkizun batzuk egiten dituztenen kontra ere, adibidez, emakumeak diren teknikarien, epaileen, entrenatzaileen, zuzendaritzetako kideen, psikologoek, fisioterapeuten, medikuen, garbiketako langileen eta abarren aurka. Horrek haien duintasuna, intimitatea eta osasuna urratzea dakar.
7. **Esparru digitaleko indarkeria edo ziberindarkeria.** Teknologia berrietan, sareetan edo Interneten emakumeen aurkako egiturazko diskriminazioa errepikatzen da: emakumeak gauza bihurtzea, emakumeen gorputzari eragiten zaion komertzializazioa, emakumeen kontrako indarkeriak irautea eta maitasun erromantikoaren ideia, besteak beste, jokabide matxistak normalizat jotzera eta haiek gauzatzera bideratzen duten alderdiak dira. Jokabide-mota horiek eragin handia dute neskenengan eta nerabeengan.



Emakumeen aurkako indarkeria toki edo gune fisikoetan eta birtualetan gauzatzen da.



BERRIOZARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN
JARDUTEA KOORDINATZEKO I. TOKI-PROTOKOLOA

ESKU HARTZEKO EREDUA ETA IKUSPEGIA



7. ESKU HARTZEKO EREDUA ETA IKUSPEGIA

14/2015 Foru Legearen 6. artikuluan jasota dauden esku-hartze profesionalaren printzipioak izaera eraldatzaile nabarmenekoak dira, eta bizirik irauten duten emakumeak esku-hartze horren erdian kokatzen dituzte, helburua haiek suspertzean eta ahalduntzean jarrita.

GIZA ESKUBIDEEN ERRESPETUA ETA SUSTAPENA, GENERO-IKUSPEGIA, DISKRIMINAZIOAREN DEBEKUA ETA DISKRIMINAZIO ANITZARI ARRETA EMATEA

Giza eskubideak unibertsalak dira eta pertsona guztiei aplikatuko zaizkie, inolako bereizkeriarik egin gabe arrazoi hauetako batengatik: sexua, arraza, etnia, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo beste izaera batekoa, jatorri nazionala edo soziala, gutxiengo nazional batekoa izatea, aberastasuna, jaiotza, dibertsitate funtzionala edo beste baldintza bat. Gehiengoaren “arautik” ateratzeak berekin dakar aldaketa sozial bat, berdintasunean eta justizia sozialean aurrera egiten jarraitzeko erronka bat.

Emakumeen aurkako indarkeriari eman beharreko erantzunerako, oinarrizkoa izango da ulertzea generoko estereotipoak eta harremanak, haien erroak eta ondorioak.

Indarkeriatik bizirik ateratzea lortzen duten emakumeen eskubideetako batzuk hauek dira:

1. Beren egoera pertsonalera egokitutako informazioa eta aholkularitza jasotzeko eskubidea.
2. Arreta osoa edo integrala jasotzeko eskubidea.
3. Laguntza juridiko doakoa, berehalakoa eta espezializatua jasotzeko eskubidea.
4. Lan-eskubideak eta prestazio sozialak.
5. Erreparaziorako eskubidea.
6. 14/2015 Foru Legearen 31. artikuluan eta hurrengoetan xedatuta dauden guztiak, eta bai 4/2015 Legean, apirilaren 27koan, Delituaren Biktimaren Estatutuarenean, aitortuta dauden eskubideak ere.

Eskubide hauek inolako diskriminaziorik gabe aitortzen dira eta migratzaileak ere barne hartzen dituzte (Erkidegokoak edo kanpokoak), bizileku-egoera administratiboa bereizi gabe.



Intersekzionalitatea kontzeptu teorikoa da eta bai ikuspegi analitikoa ere, subjektuen edo taldeen bizi-esperientziak moldatzen elkarri eragiten dioten botere-sistema desberdinen arteko harreman elkartuen matrize bat aztertzen duena, eta indarkeriari aurre egin behar izateko arriskua eta eskubideak, zerbitzuak eta baliabideak eskuratzean zailtasun handiagoak izateko arriskua areagotzen dutenak.

Bizirik irauten dutenak indarkeriatik ateratzeko beren prozesuen protagonistak dira.

BEHAR BEZALAKO PRINTZIPIOA

Deskribatutako esku-hartze eredua protokoloa izenpetzen duten alderdi guztietara zabalduko da, Berriozarren indarkeriari arreta emateko sistema osoaren erantzuna homogenea eta koordinatua izan dadin.

ERANTZUN INTEGRALA ETA KOORDINAZIOA

Profesionalek emakumeen inguruabar eta behar espezifikoetara egokituko dute beren esku-hartzea, hartara, zeinahi jarduketa asistentzialista, paternalista, matxista, etnozentriko, helduzentriko saihesteko edo gainerako diskriminazio-kategorien pribilegio-posizio bati dagokion beste edozein saihesteko.

Erakundeen erantzunak onartzen du emakumeen kontrako indarkeria faktore anitzeko arazoa dela eta biktima diren emakumeen beharrei politika publikoaren esparru desberdin askotatik heldu behar zaiela. Horren ondorioz, erakundeen erantzuna integrala izango da, eta instantzien arteko koordinazioa eta lana sustatuko ditu.

Gomendagarria da indarkerian eta gizarte-trebetasunetan espezializatutako prestakuntza duen profesional batek ematea arreta.

ERRESPETUA ETA BIRBIKTIMIZAZIORIK EZA

Erakundeen erantzunak bideak ezarriko ditu ziurtatzeko biktimak errespetuz tratatzen direla eta emakumea ez dela bi aldiz biktima bihurtzen; bermatuko da neurriak bideratzen direla bizirik iraun dutenen autonomia eta askatasuna lortzera, eta haien behar nagusiei erantzuten zaiela, biktimen seme-alabenak barne.

ERANTZUKIZUNA

Erakunde publikoek prestakuntza-prozesuak ezarriko dituzte, emakumeak beren eskubideez egiaz balia daitezkeela ziurtatzeko ardura dutenek modu egokian jarduten dutela bermatzeko. Era berean, erantzukizunak eskatuko dira arreta falta dagoenean.

PARTAIDETZA

Bizirik iraun duten emakumeek eta emakumeen elkarteek, bai eta arlo horretako berariazko problematika duten bestelako talde ahulen elkarteek ere, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko zerbitzu eta politika publikoen diseinuan eta ebaluazioan parte har dezaten bultzatuko da.

Protokoloaren esparruan, jasotako arretaren gainean indarkeriatik bizirik atera diren emakumeek ematen duten iritzia eta balorazioa aintzat hartu eta bildu egingo da.

BITARTEKARITZAREN BERARIAZKO DEBEKUA

Emakumeen kontrako indarkeria kasuetan, biktimaren eta erasotzailearen arteko bitartekaritza berariaz debekatuta dago, aplikatu beharreko oinarritzko araudian xedatuta dagoen moduan.

Esku-hartze jarraibide orokor eta berariazkoen xedea da lehen protokolo hau izenpetu duten erakundeetako langileak orientatzea. Langile horiek, era berean, beren sektoreko jarduketa-protokoloak eta indarrean dagoen araudia bete beharko dute.

1.- JARRAIBIDE OROKORRAK

Jarraian, esku hartzeko jarraibide batzuk adierazten dira. Bereziki aurreneko arretan, saiatu behar da azkar ezartzen lehenbiziko hitzordua eta hitzordu horretan enpatia eta gertutasuna erakusten, eroso, lasai, onartu, errespetatu eta ez epaitu sentiarazten. Une giltzarria da hori, aurreneko iritzi horren mende egongo baita bere arreta-sarea ulertzeko modua eta horrek eragina izango baitu bere segurtasunean eta konfiantzan. Jarduketa oker batek kaltea handitzen du, eta biktimizazio sekundarioa indartzen du. Garrantzitsua da gogoraraztea erakundearen arreta-zirkulua uzten badute beren babesgabetasun-maila handitu egin daitekeela.

Gainera, indarkeriaren biktima den emakumearen profil baten estereotipoa dute askok eta horrek zaildu egiten die aurrez aurre duten indarkeria identifikatzea.

- ∞ Arreta bakarka ematen saiatu behar da, toki lasai eta pribatu batean, konfidentzialtasuna eta intimitatea sustatuko duenean. Emakumeak hurrekin eta/edo nerabeekin joaten badira, beraiek toki batean egongo dira eta adingabeak beste batean.
 - ∞ Eskaera esplizituari eman behar zaio arreta, eta bai inplizituari ere. Kontuan izan behar da sarritan emakumeek ez dutela esplizituki adierazten indarkeria dutela aurrez aurre edo ez direla ezta horren jakitun ere eta erantzuteko edo egoerari aurre egiteko zailtasunak izan ditzaketela.
 - ∞ Beharrezkoa den denbora erabili behar da eta jarrera enpatikoa eduki behar da, erru- edo anibalentzia-sentimenak albo batera utz ditzala saiatuta.
 - ∞ Jarrerak eta egoera emozionala behatu behar dira (hitzezkoa eta ez-hitzezkoa).
 - ∞ Biktimak ohikoa duen hizkuntzan komunikatzea saiatu behar da, eta bere ezaugarrietara eta dagoen egoerara egokitzen den hizkera ulergarri bat erabili behar da. Esku hartu behar duen profesionalak ez badaki emakumearen hizkuntza, erakunde bakoitzean erabilgarri dagoen itzulpen-zerbitzuarekin koordinatuko da.
 - ∞ Sentimenak adieraztea erraztu behar da.
 - ∞ Emakumeok indarkeriarik gabe bizitzeko eta gure ongizatea lortzeko eskubidea dugula argi eta irmo adierazi behar zaio.
 - ∞ Sinetsi egin behar zaio, zalantzan jarri gabe gertakariez egiten duen interpretazioa, iritzirik eman gabe.
 - ∞ Berak nahi badu, bere konfiantzazkoa den pertsona batek lagun egin ahal izango dio.
 - ∞ Pentsatzen eta ideiak ordenatzen lagundu behar zaio.
 - ∞ Arriskuez ohartarazi behar da eta bere aukera onartu behar da. Ez zaio irizpiderik edo erabakirik inposatu behar.
- Emakumea da erabakiak hartzen dituen eta bere ekintzen denbora mugatzen duena.

- ∞ Galdera erraztaileak erabili behar dira. Segida logiko bati jarraitu: galdera orokorrago eta zeharkako batzuetatik galdera zehatzago eta zuzenetara joan.
- ∞ Ez eman esperantza faltsurik.
- ∞ Ez kritikatu bere jarrera edo erantzunik eza, besteak beste, halako esaldiekin: “Zergatik jarraitzen du harekin? Egoera amaitu nahiko balu, joan egingo litzateke”.
- ∞ Ez gutxietsi emakumeak adierazitako arrisku-sentsazioa.
- ∞ Ez zaio gomendatu behar bikote-terapia edo familia-bitartekaritza egiteko. Berariaz debekatuta daude.
- ∞ Aurrez aurre duen indarkeriara “joan eta etortzeko” jokaera izan dezake, baina bere asmoa ez da laguntzen ari zaiona “erotzea”.
- ∞ Bere anonimotua bermatu behar da, eta, ahal den neurrian, administrazio-izapideak murriztu behar dira.

2.- BERARIAZKO JARRAIBIDEAK

Bizirik irauten dutenek ezaugarri indibidual eta kolektibo askotarikoak izaten dituzte. Hartara, esku-hartze profesionala begirada interseksional batetik egin dadin, ezaugarri horiek aintzat hartu behar dira. Jarraian, haietako batzuk adierazten dira.

2.1.- ADINA

Adina arrisku-faktorea izan daiteke aintzat hartzen badugu adingabeak eta adin handiko emakumeak mendekotasun edo zaurgarritasun handiagoko egoeran daudela eta horrek babesgabetasun handiagoa ekar dezakeela.

Haurrak eta nerabeak

Haurrak eta nerabeak babesteko 2015ean eta 2021ean onartu ziren legeek behartzen dituzte protokolo hau izenpetu duten instantziak haurren prebentzioa, babesa eta arreta osoa bermatzeko ahaleginak areagotzera indarkeriaren aurrean eta lehentasunezko erantzuna eskaintzera. Garrantzitsua da kontuan hartzea amaren eta emakumearen ikuspegia, genero-roletan ez erortzeko.

Adin handiko emakumeak

Adin handiko emakumeen aurkako indarkeria alderdi indibidualen, harremanetakoan, sozialen, kulturalen eta ingurumenekoan interakzio konplexu baten emaitza da. Kolektibo edo talde zaurgarria dira, eta erasotzailearekin luzaroan bizitzeak emakume horiei eragindako indarkeria kronifikatzea eta normalizatzea dakar.

2.2.- SEXU-ORIENTAZIO ETA GENERO-IDENTITATE ASKOTARIKOAK

Berdintasuna eta diskriminazio-eza ulertezina eta onartezina da gizakiaren erabateko dibertsitatea edo aniztasuna onartu gabe. Sexu-orientazioa ez dago sexu biologikoaren edo genero-identitatearen mende. Pertsona batek bere genero bereko, beste genero bateko edo genero bateko baino gehiagoko pertsonengatik erakarpen emozional, afektibo eta sexual sakona sentitzeko duen gaitasunari dagokio, eta bai pertsonekin harreman intimoak eta sexualak edukitzeko gaitasunari ere. Kontzeptu konplexua da, eta bere formak aldatu egiten dira denborarekin eta diferenteak dira kultura desberdinen artean.

Genero-identitatea pertsona bakoitzak sakon sentitzen duen generoaren barne-bizipen eta bizipen indibiduala da, jaiotzean unean izendatu zitzaion sexuarekin bat etor daitekeena edo ez, eta barne hartuta gorputzaren bizipen pertsonala (barne har dezakeena itxura edo gorputzaren funtzioa aldatzea, teknika medikoen, kirurgiako edo beste izaera batekoen bidez, aldaketa hori libreki aukeratutakoa baldin bada) eta generoaren beste adierazpide batzuk, barne hartuta janzkera, hitz egiteko modua eta jokamoldea.

LGTBI kolektiboa (lesbianak, gaiak, transexualak, bisexualak eta intersexualak) baztertu egin ohi da, beldurra zaio, ez da onartzen, aurreiritziak daude harekiko eta/edo diskriminatu ohi da (LGTBIfobiak barne hartzen du lesbofobia, bifobia, homofobia, transfobia eta interfobia), justifikazio politikoek, kulturakoek, erlijioek, legekoek eta baita sasimedikuntzakoek ere elikatuta.

Aintzat hartu beharreko egoera batzuk:

- ∞ Barregarri uzteko, ez ulertzeko eta epaituak izateko beldurra izan dezakete, gizartearen eta erakundearen lesbofobiarengatik.
- ∞ Berezi beren ingurune pertsonalean, lanekoan edo sozialean LGTBI jendea gaitz iritzia bada, publikoki katalogatua eta epaitua izateko beldurra izan dezakete.
- ∞ Bakartuta egon daitezke, haien inguruak ez izateagatik beren sexu-orientazioaren berri.
- ∞ Oztopo erantsiak egon daitezke, toki tradizionalagoetan, landa-arlokoetan eta/edo erlijio-sinesmen errotoak dituztenetan bizitzeagatik.

2.3.- ADIKZIOAK ETA OSASUN MENTALA

Indarkeriak depresioa, antsietatea eta osasun mentaleko beste nahasmendu batzuk eragiten ditu.

Minbizia, bihotzeko gaixotasunak, istripu zerebrobaskularrak eta GIB/hiesa agertzea ere eragiten du, indarkeriatik bizirik ateratzen direnak, sarritan, arriskuko jokaerak izanda saiatzeko baitira aurre egiten beren esperientzia traumatikoei, adibidez, tabakoa, alkohola eta drogak kontsumituta eta arriskuko sexu-jardunbideak izanda. Alde horretatik, indarkeriak, gainera, heriotza goiztiarra edo bizitza osoan osasun txarra izatea eragin dezake. Buruko gaixotasunen diagnostikoa duten eta/edo adikzioa duten emakumeekin esku-hartzea egiteak konplexutasun handia du, eta horrek eskatzen du ikuspegi berberetik arituko diren eta bizi izandako indarkeria esku-hartzearen erdian jarriko duten dispositibo espezializatu desberdinak abian jartzea.

Emakume hauek aurkitzen dituzten oztopoetako batzuk hauek dira:

- ∞ Erresistentziak, indarkeriaren sareko egoitza-baliabideetan haiei eta beren adingabeei, halakorik badute beren kontura, egiten zaien harreran.
- ∞ Lehenarretako zentroetatik droga-mendekotasuneko arretarako sare espezializaturaino, profesionalen prestakuntza eskasa generoan eta indarkerian espezializaturaino, modu egokian eta integralean aritzeko. Horrek ekartzen du prebentzioko programen plangintza eta ikuspegi terapeutikoak ez direla diseinatzen generoko ikuspuntutik.

2.4.- JATORRIA ERKIDEGOAN EDO ERKIDEGOTIK KANPO EDUKITZEA

Indarkeriari aurre egin behar dioten etorkinek izaten dituzten inguruabar pertsonaletako batzuk hauek dira:

- ∞ Sarerik ez izatea.
- ∞ Autonomia ekonomikorik ez izatea.
- ∞ Hizkuntza ez jakitea.
- ∞ Beren eskubideen berri ez izatea eta erakundearen egitura ezezaguna izatea.
- ∞ Beren bikotekideek berriz elkartutako emakume gisa duten administrazio-estatusa galtzeko beldurra, seme-alabak berriz elkartzeko aukerarik ez izatekoa, baimena bikotekidearen mende badago.
- ∞ Bikotekidea kanporatzeko beldurra.
- ∞ Beldurra, administrazio-irregulartasuneko egoeran egoteagatik. Kontuan izan behar da Atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren 31. Bis artikulua xedatzen duela, amaitutako prozedura penaletik ezin bada ondorioztatu genero-indarkeriako egoera, 53.1a) artikuluko arau-hausteagatik zehapen-espeditente administratiboa abiaraziko dela edo, hasieran eten bada, jarraipena emango zaiola.
- ∞ Segurtasun-gabezia juridikoa, jatorrizko herrialdeetan dokumentu-izapideak egiteko edo arintzeko, eta abarretarako.

2.5.- ETNIA

Ijito-komunitatea da Estatu espainiarrean ordezkartza handiena duen gutxiengo etnikoa eta presentzia du Berriozarren. Ijito-komunitatearen kultura-ezaugarri bereizgarrienen artean emakumeak hezitzaile, zaintzaile nagusi eta balioen eta kulturaren transmititzaile gisa duen eginkizuna dago. Emakume ijitoen errealitatea oso askotarikoa da, eta aldagai sozioekonomikoek, hezkuntzakoek eta etxebizitzakoek baldintzatuta dago. Emakume ijitoek sexuagatiko eta gutxiengoa duen talde bateko kide izateagatiko diskriminazioari egin behar diote aurre, eta, horrenbestez, beren arrisku-egoera eta zaurgarritasun soziala handiagoa da. Zenbaitetan, gainera, gizarte-bazterketako egoeran egoten dira, eta egoera horrek berekin ekartzen du autonomia ekonomikoa izateko eta salaketa egiteko oztopo erantsi bat.

Indarkeriari aurre egin behar dioten emakume ijitoen inguruabar pertsonal eta sozialetako batzuk hauek dira:

- ∞ Ijito-komunitatean, emakumeen aurkako indarkeria gai tabua da, komunitatearen barne-kohesioko arauetatik abiatuta konpontzen dena, indarkeria-egoerak larriak eta ikusteko modukoak direnean, baina konpondu gabe gelditzen dira beste indarkeria-mota ugari.
- ∞ Indarkeria salatzeak ondorio handiak ditu komunitatean eta, batez ere, erasotzailearen eta bizirik irauten duenaren familia handietan. Komunitatearen babesgabe galtzeko arriskua edukitzen du emakumeak.
- ∞ Indarkeria ikusgai ez egiteko joera dago.
- ∞ Emakume ijito askok ez dute uste indarkeria duten harremanak delitua eta beren funtsezko eskubideen urraketa direla.
- ∞ Baliabide normalizatueta joateak berekin dakar aitortzea beren komunitatearen beraren baliabideak ez direla eraginkorrak izan.
- ∞ Autonomia eta independentzia eskasa dute fisikoki heltzeko baliabide eta zerbitzuetara.
- ∞ Seme-alabengandik urruntzeko beldurra dute.
- ∞ Gehiengoa duen gizartearen baliabideekiko mesfidantza sentitzen dute, beren diskriminazio-historiak eraginda.

BERRIOZARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN
JARDUTEA KOORDINATZEKO I. TOKI-PROTOKOLOA

KUDEAKETA-SISTEMAK



8. KUDEAKETA-SISTEMAK

Lehen protokolo hau ezartzeak eskatzen du berau izenpetu duten erakundeen artean koordinazio-bide sendoak sortzea, eta bai plangintzarako, jarraipenerako eta ebaluaziorako sistema egoki eta eraginkor bat sortzea ere.

COORDINAZIOKO TOKIKO MAHAIAK

Protokolo honen helburuak betetzeko, tokiko koordinaziorako hiru maila ezartzen dira. Hain zuzen, hiru maila horiek politikarientzako eta langile teknikoentzako bi mahaitan eta udalerriko egitura feministarekin, emakumeen eta elkarten egiturarekin elkarrizketan aritzeko gune batean egituratzen dira.

1

COORDINAZIO POLITIKOKO MAHAIA (KPM)

Protokoloa sinatu duten erakundeetako politikariek eratuko dute mahai hau. Gutxienez, urtean behin bilduko da, eta ohiz kanpoko eran, hala egitea beharrezkoa denean.

Mahaiaren eginkizun nagusiak hauek dira:

1. Koordinazio Teknikoko Mahaiak aurkezten dituen lan-txostenak, iradokitako hobekuntzak, urteko lan-plana eta finantzaketa onartzea.
2. Protokolotik eratorritako akordioei jarraipena egitea eta haiek ebaluatzea.
3. Detekzioa, arreta, laguntza, erreparazioa eta emakumeak oneratzea hobetzeko beharrezkoak diren neurriak ezartzea, bai eta osasun-larrialdiko egoerei heltzeko neurri bereziak ere.
4. Urtero kontuak ematea publikoki, emakumeen aurkako indarkeriaren gaian Berriozarren garatutako arretarekin lotuta, eta lotutako talderen batek parte hartzea sustatuta. Erakunde bakoitza ordezkatzeko duten langileek prestakuntza espezializatua eduki beharko dute berdintasunaren gaian eta, berariaz, emakumeen kontrako indarkerian, hori funtsezko baldintza baita garatzen diren sektore-politika publikoen lidergo on baterako.

2

COORDINAZIO TEKNIKOKO MAHAIA (KTM)

Protokoloa izenpetu duten erakundeen langile tekniko ordezkariak osatuko dute mahai hau, indarkeriari aurre egin behar dioten emakumeen arretan zuzenean esku hartzen dutenek. Erakunde izenpetzaile guztiek bermatuko dute KTMn ordezkatzeko dituzten langileek gai honetan prestakuntza espezializatu sendoa daukatela, eta, halakorik ez badute, langile horiek izendatu eta hurrengo hiru hilabeteen barnean prestakuntza hori ematera behartuta egongo dira.

Halaber, bermatuko dute izendatzen dituzten pertsonak egokiak direla eta konpromisoak beren gain hartzeko, erabakiak hartzeko eta akordioak egiteko beharrezkoak diren dedikazioa eta aginpidea dutela.

KTM eratzen duten kideak arduratuko dira protokolo honen edukia beren erakundeen barnean hedatzen dela bermatzeaz, eta KTM mahaiaren eta beren erakundearen arteko kontaktu-bidea izango dira, erakundeen barnean sor litezkeen beharrak aztertuta eta bai esku-hartzean eta koordinazioan egon litezkeen argi-itzalak ere.

Gertatzen den zeinahi aldaketa eguneratuko dute kontaktuen taulan eta ahalik eta azkarrena bidaliko dute Udaleko Berdintasun eta Politika Feministarako Arlora.

KTM mahaiaren eginkizun nagusiak hauek dira:

1. Arreta emandako emakumeei jarraipena egitea.
2. Jarduerak koordinatzea.
3. Berriozarren emakumeen aurkako indarkeriaren intzidentzia aztertzea.
4. Lehen protokolo honetan agente berriak sartzea aztertzea eta sustatzea. Protokoloaren helburuak lortzen lagunduko duten agenteak izango dira.
5. Protokolo honetan jasota dagoen edozein indarkeria-motarengatik arreta emandako emakumeen datuak bildu eta aztertzea, eta bai haien sistematizazioa hobetzea ere.
6. Protokoloaren urteko jarraipenari buruzko txostena egitea.
7. Protokoloaren funtzionamendua eta erakunde bakoitzak garatutako esku-hartze profesionala ebaluatzea.
8. Prestakuntza-beharrak identifikatzea eta KPM mahaiari helaraztea.
9. Protokoloan egin daitezkeen hobekuntzak detektatzea, emandako arretaren kalitatea hobetze aldera. Horretarako, protokolo honen gauzate-esparruan jakinarazitako gorabeherei buruzko txosten bat egin behar du.
10. Protokoloaren funtzionamendua eta erakunde bakoitzean garatutako esku-hartze profesionala ebaluatzea.
11. Zerbitzuetara jotzen duten emakumeen iritziak biltzea, haien gogobetetasun-maila eta hobetzeko izan ditzaketen eskaerak ezagutzeko.
12. Udalerriko emakumeen elkarte-sareak eta sare feministak, gai honetako zerbitzuen kalitatearen mailari dagokionez, egiten dituzten balorazio orokorrak biltzea.
13. Protokoloaren esparruan egindako lanari buruzko informazio garrantzitsua (datuak, kanpainak, azterlanak eta abar) helaraztea Nafarroako Berdintasunerako Institutuari, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eta, egokia bada, beste agente batzuei, barne hartuta emakumeen elkarrekin, talde feministak eta herritarrak.
14. Erakunde publiko eta pribatuekin elkarlanean eta partaidetzan aritzeko harremanak eta bideak ezartzea. Beren helburuak edo eginkizunak direla-eta, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen laguntzen, eta, bereziki, emakumeen aurkako indarkeriaren gaian laguntzen duten erakundeak izango dira, hain zuzen.
15. Tokiko emakumeen elkarte-sarearekin eta sare feministarekin elkarrizketan aritzeko guneak bultzatzea.
16. Eta bere eskumenen eta jarduketan esparruan agintzen zaion beste edozein.

3

BERRIOZARKO EMAKUMEEN SAREAREKIN ETA SARE FEMINISTAREKIN KOORDINATZEKO GUNEAK

Protokolo honen xedeetako bat da emakumeek aurrez aurre duten indarkeria detektatzea eta horretan jardutea hobetzea, bai eta haien akonpainamendua eta ahalduntzea ere. Berriozarko elkarte feministek eta emakumeen elkarteek eginkizun erabakigarria dute, bereziki, laguntza-zirkuiturako zubi moduan eta emakumeen ahalduntze banakakoa eta kolektiboa sustatzen duten gune gisa. Egitura asoziatibo horren ezaugarri desberdinak kontuan izanda, Berdintasun Arloak urtero ezarriko ditu berarekin komunikatzeko eta hark parte hartzeko bideak, protokolo honetan jasotako parte-hartze printzipioak aintzat hartuta.

BERRIOZARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN
JARDUTEA KOORDINATZEKO I. TOKI-PROTOKOLOA

ESKU HARTZEKO PROZEDURA, ZERBITZUEN ARABERA



Berdintasun Arloa aukera berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko udal-politiken ardatz nagusia da, bai udal-erakundeari eta bai herritarrei bideratutako udal-politiken ere.

Eginkizunak

- Berdintasun Arloko Aholkularitza Juridikoa eta Aholkularitza Psikologikoa koordinatzea.
- **“EAI sarbide-fitxa”** (1. eranskina) jasotzea eta datuak sartzea Emakumeen aurkako Indarkeriaren Erregistro Dokumentuan.
- Koordinazio Teknikoko Mahaia (KTM) koordinatzea: deialdia egitea, eguneko aztergaiak finkatzea, agiriak egitea, hobetzeko iradokizunak hartzea eta ardurak izendatzea.
- Informazioa eta bildutako datuak helaraztea.
- Elkarrizketa izatea Koordinazio Teknikoko Mahaiaren (KTM) eta Koordinazio Politikoko Mahaiaren (KPM) artean.
- Protokolo honi zabalkundea ematea parte hartzen duten zerbitzu desberdinetan.
- Bizirik irauten duten emakumeei eskaintzen zaien arretari jarraipen osoa egitea, protokolo honetako koordinazioaren bidez.
- Hobekuntza-arloak identifikatzea prozesu aktiboetan, eta protokolo honek, benetan aplikatzean, izan ditzakeen gabeziak zuzentzea.
- Protokolo hau egoki aplikatzea bermatzen duten prestakuntza-ekintzak garatu eta ezartzea.
- Urteko jarraipen-txostenak egitea.

Prozedura

Berdintasun Arloak bere gain hartu behar du protokolo honen kudeaketa, garapena eta koordinazioa, izendatuta eduki gabe emakumeen aurkako indarkeriatik bizirik atera diren emakumeekin esku-hartze zuzena izateko eginkizunik.

1. Emakumeen aurkako indarkeria-egoera bat identifikatu duen arloak edo erakundeak informazioa eman behar dio –posta elektronikoaren bidez–, **“EAI sarbide-fitxa”** (1. eranskina) bidalita, bideratzen duen arloak edo erakundeak beteta.
2. Emakumeak larrialdietara joan behar badu, telefono bidezko harremana ezarri behar da 112 SOS Nafarroarekin, kasu hauetarako ezarrita dagoen protokoloa aktibatze aldera.
3. Berdintasun Arloak informazioa bete behar du Emakumeen aurkako Indarkeriaren Erregistroan.
4. Esku hartzeko prozesu bat abiarazi bada, kasuaren jarraipena egingo da.
5. Berdintasun Arloak harremana ezarri behar du –telefonoz, posta elektronikoaren bidez edo aurrez aurre– kasu jakin baten bideratzean eta esku-hartzean inplikaturik dauden arloekin eta/edo erakundeekin eta aurreneko bilerarako deia egin behar du.

Berdintasun Arloak arreta emandako emakumeen jarraipena egin behar du, beste baliabide batzuek fitxa jakinarazi eta gero. Esku-hartzeren bat egin dezaketen arloekin eta/edo erakundeekin harremanetan jarriko da. Koordinazio hori telefono bidezkoa izango da edo bilera baterako deia eginda, hala egitea beharrezko jotzen bada. Kasuaren larritasunaren arabera planifikatuko da jarraipena: arloak eta/edo erakundeak esku-hartzeren bat egiten duen bakoitzean edo hilean behin egin ahal izango da. Edonola ere, ez da hilabete bat baino gehiago igaroko kasuaren jarraipena egin gabe.

Berriozarren emakumeen aurkako indarkeriaren eraginaren erregistro eguneratu bat edukitzeko ardura eta erantzukizuna du Berdintasun Arloak. Bizirik Iraun duten Emakumeen Erregistroa sortuko da, eta baliabide desberdinek, EAI sarbide-fitxaren bidez, eskainitako informaziotik abiatuta bete behar da.

AHOLKULARITZA JURIDIKOA ETA AHOLKULARITZA PSIKOLOGIKOA KOORDINATZEA

Berdintasun Arloak aholkularitza juridikoko eta aholkularitza psikologikoko kanpoko zerbitzuak koordinatu behar ditu, Berriozarko Udalak kontratatuta dituenak.

Aholkularitza juridiko eta psikologiko indibidualizatua eskaintzen diete emakumeen aurkako indarkeria pairatzen duten emakumeei edo pairatzeko arriskua dutenei eta eskatzen dutenei, eta bai emakume horien ardurapean dauden pertsoneri ere, bereziki mendekotasun-egoeran daudenei, dela adinarengatik dela aniztasun funtzionalarengatik (desgaitasuna). Eta emakumeen aurkako indarkeriako mota guztietako egoeretan egiten dute: indarkeria fisikoa, psikikoa, ekonomikoa, sexu-esplotazioa, lan-eremuan, instituzionala edo planteatu ahal den beste edozein.

Generoagatiko diskriminazio-egoeren eta emakumeen aurkako indarkeria-egoeren prebentzioa egin behar dute, informazio zehatza ematearen eta aholkularitza juridikoa ematearen bidez, detektatzen diren egoera eta/edo kasu guztietan eta berriaz eskatzen den guztietan.

Gainera, aholkularitza horien arduradunak emakumeen aurkako indarkeriaren gaitan espezializatutako prestakuntzara joango dira, baldin eta bateragarria bada beren lan-bolumenarekin eta lan-ordutegiarekin.

Bai aholkularitza psikologikoak eta bai aholkularitza juridikoak modu honetan jotatuko dute emakumeen aurkako indarkeria-kasu baten aurrean:

- Berdintasun Arloko aholkularitzetako batera joaten den emakume batek kontatzen badu indarkeria-egoera bat bizitzen ari dela, edo haren susmoa badago, aholkularitza horien ardura duten pertsonak **“EAI sarbide-fitxa”** (1. eranskina) bete beharko dute eta berdintasun-teknikariari bidaliko diote.
- Beste zerbitzu batetik emakume bat bideratzen bada indarkeria-arrazoiengatik, eta zerbitzu horrek bete badu sarbide-fitxa protokolo honek ezartzen duen moduan, arreta emango zaio emakumeari eta gero koordinazioa egingo da bideratu duen zerbitzuarekin.

Berriozarren eskumena duten gizarte-arloko baliabideen barnean eta haien artean koordinazioa homogeneizatzeaz eta haien jarraibideak emateaz arduratzen dira Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, eta bai gizarte-arloko baliabide horien eta udalerrian presentzia duten eta emakumeen aurkako indarkeriari arreta ematen dioten sare publikoko beste agente instituzional batzuen artean ere.

Eginkizunak

- Emakumeen aurkako indarkeria-kasuak detektatzea, informazioa ematea eta aurreneko harrera egitea.
- Zerbitzuan identifikatzen diren edo beste baliabide batzuetatik bideratzen diren emakumeen aurkako indarkeria-arazoei erantzuna ematea.
- Emakumeei eta beren seme-alabei arreta osoa ematea bermatzen duten berriazko baliabideetara bideratzea.
- Beste baliabide espezializatu batzuetara joan nahi ez duten kasuetan, arreta soziala ematea.
- ATENPRO Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta eta Babesa emateko Telefono Zerbitzua kudeatzea.
- Arreta osoa ematea emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakumeei, babes-neurriak eskuratzea eta ematea bermatuz, aterpe-irtenbideak, diru-laguntzak eta enplegurakoak, babes sozial eta psikologikoa, emakume horientzat eta beren kontu dauden seme-alabentzat.
- Bizirik iraun duten emakumeen arretaren jarraipen integrala egitea, protokolo honen koordinazioaren bidez.

Prozedura

Gertatu berri den indarkeria fisikoko kasu bat iristea:

1. Gertatu berri den indarkeria-kasu bat heltzen bada, ageriko seinaleekin edo indarkeria fisikoa pairatu izanaren susmoekin, biktimari osasun-etxera lagundu behar zaio eta hertsatuki eskatu behar zaio medikuek egindako lesio-partea eskatzeko, aurrerago salaketan aurkeztu ahal izateko. Arreta osatzen da lesio-partea bat egitea eta dagokion epaitegira nahitaez bidaltzea nahitaezkoa izatearekin eta bai, beharrezkoa den kasuetan, ospitale batera bideratzearekin ere.
2. Emakumeak larrialdietara joan behar badu, telefono bidezko harremana ezarri behar da 112 SOS Nafarroarekin, kasu hauetarako ezarrita dagoen protokoloa aktibatze aldera.
3. Oinarrizko Gizarte Zerbitua, gainera, seme-alaba adingaberik badago, haiei babes emateaz arduratuko da, eta harrerako laguntza-baliabide bat eskuratu ahal izateko bitartekoak eman behar dizkie, telefono bidezko harremana ezarrita 11 SOS Nafarroarekin.

4. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren baliabideak eskuratzeko duen aukeraren berri eman behar zaio emakumeari, eta haren erantzuna baiezkoa bada, arreta hasi behar da zerbitzu horretan.
5. **“EAI sarbide-fitxa”** (1. eranskina) bete behar da eta Berdintasun Arlora bidali behar da, posta elektronikoaren bidez, kasuaren berri izan dezan eta biktimari arreta emateko neurriak ezar daitezzen era koordinatuan.

Emakumeen aurkako indarkeriako berriazko eskaera duen edo beste udal-baliabide batzuetatik bideratu den emakume bat iristea:

Kasu guztietan bezala, lehenasunezko arreta, arreta pertsonalizatua eta egokia emango da. Hitzordua emango zaio, berehala, itzarote-zerrendarik gabe.

Aurreneko elkarrizketaren xedeak hauek izango dira:

1. Baliabide eta zerbitzu guztien berri emango zaio, gizarte-laguntza osoa bermatze aldera.
2. Prozesuan zehar aholkularitza on bat jasotzearen garrantzia helaraziko zaio biktimari, udalaren alorretik eta udalez gaindiko alorretatik biktimaren esku jarritako baliabideak ahalik eta neurri handienean erabili ahal izateko.
3. **Banakako Jarduketa Plana (BJP)** egingo da emakumearekin batera.
4. **“EAI sarbide-fitxa”** (1. eranskina) beteko da eta Berdintasun Arlora igorriko da posta elektronikoaren bidez. Beste zerbitzu batetik bideratu badute emakumea, sarbide-fitxa hori beteta egongo da jada eta Berdintasun Arloak edukiko du.
5. **“Arriskuaren Detekzio Protokoloa”** (2. eranskina) beteko da. Balorazioaren emaitzaren arabera –arrisku baxua, ertaina edo altua–, Berdintasun Arlora (psikologoa) edo Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Talde batera (GIBAIT) bideratuko da. Hala, arriskua baxua bada, Berdintasun Arlora (psikologoa) bideratuko da; arriskua ertaina edo altua bada, Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Talde batera.
6. Gizarte Zerbitzuen Erabiltzaileen Informazio Sistema (GZEIS) beteko da eta genero-indarkeriaren modulua aktibatuko da.
7. Beharrezkoa bada, Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Talde batera edo Delituen Biktimei Arretarako Bulegora (DBAB) bideratuko da.
8. Emakumea bideratu den erakundeekin koordinazioa mantenduko da.
9. BJP planaren jarraipena egingo da esku-hartze prozesu osoan, Berdintasun Arloak eta inplikaturako beste zerbitzu batzuek koordinatuta, eta biktimari arreta emateko udalez gaindiko beste zerbitzu batekin etengabeko koordinazioan, bizirik iraun duen emakumeak errekuaratzeko prozesua gainditu duela baloratu arte edo berak zerbitzua utzi nahi izan arte. Aintzat hartu behar da emakumeen eta beren seme-alaben oinarrizko segurtasun-printzipioa, eta, beraz, segurtasun hori bermatu beharko da une oro.

Indarkeria-kasu bat identifikatzen bada, baina emakumeak ez badu argi eta garbi adierazten:

1. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak indarkeria-zantzuak identifikatzen baditu, baina emakumeak ez badu aitortzen, kontsultaren arrazoiari helduko zaio eta modu atsegin eta adeitsuan emakumearen egoera identifikatzen saiatuko da, betiere bere askatasuna eta bizi duen uea errespetatuta.
2. **“EAI sarbide-fitxa”** (1. eranskina) beteko da eta Berdintasun Arloari bidaliko zaio, posta elektronikoaren bidez, kasuaren berri izan dezan eta biktimari arreta emateko neurriak ezar daitezen modu koordinatuan.
3. Emakumeen aurkako indarkeriaren susmoa dagoen kasuetan edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak identifikatzen duenean indarkeria hori dagoela baina emakumeak ez badira jakitun edo ez badute aitortzen, kasuak Berdintasun Arlora bideratuko dira, eta han arreta psikologiko espezializatua emango zaie, errealitate horretatik abiatuta, egokia bada.
4. Emakumeak indarkeriaren jakitun diren eta aitortzen duten kasuetan, eta bai arriskuaren polizia-balorazioa ertaina, altua edo muturrekoa den kasuetan, Iruñerriko eta Iparraldeko Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Taldera bideratuko dira, eta han beren gain hartuko dute arreta espezializatua eta integrala.
5. Hitzorduak egingo dira, eta haietan giro goxoa eta konfiantzazkoa sortzen saiatuko da, emakumeari bere egoera aitortzen laguntzeko.
6. Jarraipena egingo da esku-hartze prozesu osoan, Berdintasun Arloak eta inplikaturako beste zerbitzu batzuek koordinatuta.

Berriozarren emakumeen aurkako indarkeria-egoerei arreta emateko eta zerbitzuan sarbidea izateko baliabide nagusietako bat da Oinarrizko Gizarte Zerbitzua. Zerbitzu horretatik Udalaren beraren baliabideetara edo Foru Komunitateko baliabideetara edo baliabide pribatuetara bideratzen da. Protokolo honen 15. atalean, emakumeen esku dauden baliabideen informazio zehatza ageri da.

Gizarte-esparruko baliabideen arteko koordinazioa eraginkorra izan dadin, bilera bat egingo da sistematikoki hiru hilean behin, partekatutako kasuei buruzko informazioa trukatzeko xedearekin. Berdintasun Arloa arduratuko da deialdiak egiteaz.

BABES-NEURRIAK

- Emakumeak eraso fisikoa jasan badu eta behar badu, osasun-etxera lagunduko zaio edo, beharrezkoa bada, larrialdietara, lesio-partea egin diezaioten eta salaketarekin batera aurkezteko modua izan dezan.
- Jakinaraziko zaio salaketa jartzea ez dela derrigorrezkoa, eta egiteak berekin dakarrena azalduko zaio. Non eta nola salatu azalduko zaio, edozein polizia-bulegotan (Foruzaingokoa, Guardia Zibilarrena...) eta epaitegian. Haietako edozeinetara heltzeko modua emango zaio.
- Justiziar beren egoeraren berri emateko daukaten eskubidea azalduko zaie emakumeei, horretarako denbora nahikoa emanda eta erabakiak hartzean autonomia izatea erraztuta. Halaber, defentsa juridikoa, berehalakoa, espezializatua eta doakoa edukitzeko eskubidea dutela esango zaie, eta adieraziko zaie komenigarria dela aholkularitza juridikoa jasotzea Udalaren Aholkularitza Juridikoan edo Emakumeei Arreta Juridikoa emateko Zerbitzuan.
- Nafarroako emakume guztiek, beren bikotekideen edo bikotekide ohien aurkako salaketa jartzeko orduan, edo sexu-askatasunaren aurkako delituengatik salaketa jartzen dutenek, justizia doakoa jasotzeko eskubidea dute, beren maila ekonomikoa gorabehera.
- Estatuko legeriak eta autonomia-erkidegoetakoak ematen dizkieten eskubideen informazioa emango zaie emakumeei. Halaber, adieraziko zaie, eskubide horietako batzuk betetzeko eta beren babes-sistema abian jartzeko, funtsezkoa dela emakumeen aurkako indarkeriaren biktima-egoera egiaztatzea, babes-aginduaren bidez edo, salbuespenez, Ministerio Fiskalaren txostenaren edo beste txosten batzuen bidez, nahiz eta ez den beharrezkoa harrera-baliabideak eskuratzeko, babes-sistemaren barnean dauden arren.
- Genero-indarkeriaren biktima-egoera egiaztatzea Nafarroako Gobernuari eskatu behar zaio (Nafarroako Berdintasunerako Institutua). Jarraian dagoen esteka honetan ageri dira betekizunak eta eman beharreko pausoak:

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/Genero-indarkeriaren-biktima-izaera-aitortzea>

- Babesa eta segurtasuna edukitzeko eskubidea eta babes-agindua eskatzekoa duela jakinaraziko zaio. Uztailaren 31ko 27/2003 Legeak arautzen du babes-agindua (Prozedura Kriminalaren Legearen 544.ter artikulua). Nahiz eta babes-agindua Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan aurkez daitekeen, komenigarria da hurbilenerako polizia-bulegoan edo epaitegian bertan eskatzea, hartara, aurreratu egiten baita polizia-atestatua eta babes-neurriak hartzea. Polizian izapidetu behar da, eta, harekin batera, arriskuaren balorazioaren orri bat eta salaketarena aurkeztu behar da. Hori guztia Emakumeen aurkako Indarkeria Epaitegira edo Guardiako Epaitegira eraman behar da, eta haiek 72 orduan ebaztera behartuta daude. Polizia da zuzenean hitzordua emango diona emakumeari hurrengo egunean epaitegira joateko (jeneralean) eta, jeneralean, gizona atxilotzen duena, emakume hori babesteko.

- **Genero Indarkeriaren Biktimen Aitortza** eskatzeko izapideen berri emango zaio, aitortza horrek ahalbidetzen baitio genero-indarkeriaren biktimentzako prestazioak, laguntzak eta baliabideak eskatzea, BOE etxebizitzaren erreserba izan ezik, eta Delituen Biktimen Arretarako Bulegoan eskatu behar da.
- Hauetarako berariazko akreditazioak egingo dira: errenta bermatua, gizarteratze-errenta, enplegarritasun programak, enpleguko kontratu hobaridunak, hezkuntza-arloko beka (unibertsitatekoak eta eskolakoak), derrigorrezkoak ez diren irakaskuntzak, Hezkuntza Departamentukoak (kontserbatorioak, hizkuntza-eskola ofizialak eta EGA titulua) eta igerileku publikoetarako sarrerak.
- Salbuespen gisa, salaketarik ez dagoen kasuetan ere egiaztatu ahal da, zantzurik edo emakumeei arreta ematean espezializatutako profesionalek, biktimarentzako erreferentziazko gizarte-zerbitzuak edo laguntza psikologikoko zerbitzuek informatutako indarkeria-egintzarik badago.
- Agiri hauek aurkeztu behar dira:
 - Biktimaren aldeko babes-agindua, indarrean dagoena.
 - Kondena-epai irmoa, oro har, azken 5 urteetako.
 - Ez badago betetzerik aurreko baldintza horietakoren bat, emakumeei arreta ematean espezializatutako baliabideek egindako txostena (Oinarrizko Gizarte Zerbitzua, Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Taldea, laguntza psikologikoko zerbitzuak, eta abar).
- Beren egoeraren arabera, Nafarroako Gobernuak eta beste administrazio batzuek emakumeen segurtasuna bermatze aldera haien esku jartzen dituzte beste baliabide batzuen berri emango zaie:
 - Telelaguntzako zerbitzuak: ATENPRO zerbitzua, Arreta eta Babesa emateko Telefono Zerbitzua.
- Familia Elkartzeko Guneak.
- Emakumeak adingabeekin bizi diren kasuetan, indarkeriaren biktima zuzen diren adingabeekin, indarkeriak haien bizitzetan dituen ondorioei buruzko informazioa emango zaie emakumeei eta bai administrazio publikoek haiek babesteko dituzten betebeharrei buruzkoa ere.

LAN-ORIENTAZIOA

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren Enplegu Poltsara bideratuko da informazioa eta aholkularitza emateko eta/edo Gizarteratze eta Laneratze Taldera, non akonpainamendu pertsonalizatua egingo den enplegua bilatzeko.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak antolatutako lanbide aurreko tailer edo lantegiei buruzko informazioa emango zaio.

Eginkizunak

- Arreta espezializatu eta osoa ematea –arreta soziala, hezkuntzako, psikologikoa eta juridikoa (Emakumeei Arreta Juridikoa emateko Zerbitzuaren bidez)– emakumeen aurkako indarkeriatik bizirik atera diren emakumeei beren errekupeazio-prozesu osoan.
- Bizirik atera diren emakumeen seme-alabei arreta espezializatu psikologikoa eta hezkuntza-arlokoa ematea. Alderdi edo gai honetan araudia aldatzea aurreikusita dagoen arren, adingabeei arreta emateko beharrezkoa da aitaren baimena edukitzea edo prozesu judizial bat zabalik egotea.
- Epaitegietara eta beste baliabide publiko batzuetara laguntzea, udalarenak edo udalez gaindikoak izan.

Esku hartzeko prozedura

Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Taldea (GIBAIT) emakumeen aurkako indarkeriatik bizirik atera diren emakumeei arreta emateko erreferentziazko baliabidea da, eta, horrenbestez, funtsezkoa da baliabidearekin koordinatzeko eta harremana izateko bide argiak ezartzea.


Berriozarko Udalaren Koordinazio Teknikoko Mahaian parte hartzeko zerbitzu horretako ordezkariak mahaiaren bileretara joango dira, bilera horietarako deia egiten denean.

Gainera, koordinazioaren esparruan, protokolo honetan ikusten ari garen moduan, Berriozarren parte hartzeko GIBAIT taldeak eskuordetutako pertsonak egokiak diren zerbitzuekin elkartuko dira, kasu jakinen baten koordinazioa beharrezkoa den bakoitzean (sarbide-fitxen arabera). Bilera horietan, GIBAIT taldean arreta eman zaien eta Berriozarren bizi diren emakumeen egoerak landuko dira. Bileretan, GIBAIT taldean izendatzen den edo diren arduradunek, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko profesionalek, Berdintasun Arlokoek eta, beharrezkotzat jotzen bada, kasu bakoitzaren esku-hartzean zuzenean inplikaturik dauden beste udal-arlo eta erakunde batzuetakoek parte hartuko dute.

Zehazki, puntu hauei helduko diete:

- GIBAIT taldean egindako Arreta Plan Individualizatua.
- Helburuen betetze-balorazioa.
- Bi erakundeek, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta GIBAITek, erabilitako baliabideei buruzko informazio-trukea.
- Helburu, estrategia, ekintza... berriak planteatzea, gero emakumeekin adostu beharko direnak.

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEI ARRETA INTEGRALA EMATEKO TALDEA (GIBAIT)



Eginkizunak

- Haur eta Gazteentzako Arlo gisa dituen eginkizunak gauzatzean detektatzen diren emakumeen aurkako indarkeria-egoerei arreta ematea.
- Zerbitzuaren erabiltzaileen arteko harreman toxikoen egoerak detektatzea.
- Trebakuntza ematea, berariazko prestakuntzarekin, indarkeria fisikoa, psikologikoa, soziala eta sexuala detektatu eta ezagutzeari buruz, bai egiten badute eta bai pairatzen badute, familiaren esparruan, elkartetan, kirol- edo aisia-erakundeetan, bikote-harremanetan eta sare sozialen eta Interneten bidez. Halaber, biktimei dauden baliabideen berri nola eman jakiteko prestakuntza egongo da, emakumeen aurkako indarkeriaren fenomenoak gazteekin nola landu jakiteko eta hezkidetzako eta genero-ikuspegiko neurriak nola ezarri jakiteko.
- Indarkeria-egoerei aurrea hartzea, berdintasunerako lana bere jarduketara guztietara sartzaren bidez.

Prozedura

Emakumeen aurkako indarkeria-kasuren baten berri izanez gero:

1. Urgentziazko egoera bat gertatzen bada emakumeen aurkako indarkeria-kasu batengatik, Gazteriako komunitate-hezitzaileei jakinaraziko zaie eta 112 SOS Nafarroari deituko zaio.
2. Neska erabiltzaile gazte bati eragiten dion egoera bat identifikatzen badute monitoreek, Gazteriako komunitate-hezitzaileei jakinaraziko diote.
3. Plan Soziokomunitariotik, elkarrizketa egingo da gaztearekin, giro goxoa eta enpatiazkoa sortuta. Konfiantzako giroa sortzeko bidea emango dutela uste diren pertsonen artean izendatuko dira elkarrizketa horretan parte hartuko duten profesionalak. Udalaren arloan eta udalez gaindi eskura dituen baliabideen berri emango zaio gazteari: Berdintasun Arloa, Oinarrizko Gizarte Zerbitzua, Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Taldea (GIBAIT)...
4. Berdintasun Arloan sarbidea izatea erraztuko zaio, lehentasunezko baliabide gisa.
5. **“EAI sarbide-fitxa”** (1. eranskina) beteko da eta posta elektronikoz bidaliko zaio Berdintasun arloari.

6. Gazteak Berdintasun Arloan sartzea erabakitzen badu:

- Berdintasun Arloak kasuak koordinatzeko deituko dituen bileretan parte hartuko du Haur eta Gazteentzako Arloak edo, gainerakoan, eskatzen zaion informazioa bidaliko du.

7. Gazteak erabakitzen badu Berdintasun Arloan ez sartzea:

- Emakumeak ezezkoa ematen badio, eskura dituen baliabideen eta zerbitzuen zerrenda eskainiko zaio.
- Kasuari jarraipena egingo zaio Berdintasun Arloarekin egiten diren bileretan. Bilera horietan, gainera, bai neska gazteen eta bai gazteen guneko mutilen harreman toxiko moduan identifikatutako kasuen jarraipena egingo da, Haur eta Gazteentzako Arloaren Gertakarien datu-basean erregistratuta daudenena.

Emakumeen aurkako indarkeria-kasuren baten susmoa eta/edo gazteen artean seinale toxikoen susmoa izanez gero:

- Gazteen artean identifikatzen badira sumisio- eta kontrol-dinamikak erakusten dituzten harremanei egokitu ahal zaizkien egoerak, Gazteentzako Arloaren Gertakarien datu-basean erregistratuko dira, gazteei jarraipena egin ahal izateko. Kasu honetan, ez da beteko **“EAI sarbide-fitxa”** (1. eranskina).
- Sei hilean behin Berdintasun Arloari identifikatutako eta erregistratutako gertakarien berri emango zaio, azken horren eskariz, eta sei hilean behingo bileretan helduko zaie. Gainera, Gazteentzako Arloko langileak emakumeen aurkako indarkeriaren gaian espezializatutako prestakuntzara joango dira, baldin eta bateragarria bada beren lan-bolumenarekin eta lan-ordutegiarekin.

Gazteentzako Arloak urtero egingo ditu jarduerak emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko eta horretan sentsibilizatzeko, eta Berdintasun Arloak sustatutako ekintzekin elkarlanean ariko da.

Protokolo honetan ezartzen den prozedura pauso hauetan antolatuko da:

1. Koordinazio Teknikoko Mahaiaren eremuan, lan-saioan parte hartzea.
2. Kasuak koordinatzea, sarbide-zerbitzua Gazteentzako Arloa izan denean edo arlo hori inplikaturik dagoenean edozein modutara.
3. Berdintasun Arloarekin ekintzak koordinatzea, emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko.

Eginkizunak

- Emakumeen aurkako indarkeria-kasuak detektatzea eta haiei arreta egokia ematea, hezkuntzaren esparrutik.
- Hezkuntzaren esparruan eskubide moduan izan ditzaketen zerbitzuen eta prestazioen informazioa eta babesa ematea emakumeei eta neskei edo, egokia baba, haien familiei, edo, gainerakoan, informazio egokia eman diezaiekeenengana bideratzea.
- Emakumeen aurkako indarkeria-egoerak dituzten familietan bizi diren adingabeei jarraipena egitea.
- Hezkuntzaren esparrutik prebentzioa egiteko baldintzak ezartzea, kultura-jokaeretan aldaketak sustatze aldera eta, hartara, aurreiritziak, ohiturak, tradizioak eta emakumeak gutxiago direlako ideian oinarritutako beste edozein jardunbide errotik kentzen laguntze aldera.
- Ikastetxean erreferentziazkoak diren pertsonak emakumeen aurkako indarkeriaren gaian espezializatutako prestakuntzara joango dira, baldin eta bateragarria bada beren lan-bolumenarekin eta lan-ordutegiarekin.
- Ikastetxeak emakumeen aurkako indarkeriari **aurea hartzeko eta** arlo horretan **sentsibilizatzeko** jarduerak egingo ditu ikasturte bakoitzean, eta, horrez gain, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren **Skolae programan** parte hartuko du. Izan ere, programa horrek “proposatzen du hezkuntza-etapa guztietan berdintasunera bideratzen ez duten jarrerak eta jokaerak aztertu, zuzendu eta konpentsatzea, eta bai berdintasun hori lortzen lagunduko diguten jarrerak eta jokaerak erakutsi eta identifikatzea”.
- Ikastetxea Berdintasun Arloarekin koordinatu ahal izango da, emakumeen aurkako indarkeriari aurea hartzeko eta gai horretan sentsibilizatzeko ekintzak gauzatzeko.

Prozedura

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak, hezkuntzaren esparrutik emakumeen aurkako indarkeria-kasuak detektatu eta haiei arreta egokia ematea errazteko helburuarekin, Nafarroako eskola-bizikidetzari buruzko araudiaren bidez, arautu egiten du eta indarkeria-kasuen aurrean egoki jarduteko gidaliburua hedatzen du. Babesaren printzipioak, esku-hartze eraginkorra, azkarra eta urgentziazkoa, ez-arina, egitekoak eta zuhertasun- eta konfidentzialtasun-printzipioak gidatu behar du hezkuntzaren esparrutik hedatzen den esku-hartze oro.


Ikastetxeetan, indarkeria zenbait esparrutan gertatu ahal da:

- Langile emakume edo ama baten aurkako indarkeria.
- Ikastetxeko langileek langile emakume bati eragindako indarkeria.
- Gainera, DBHIko ikasleen kasuan, ikasle neska batek familia-, eskola- edo aisia-ingurunean jasotako indarkeria edo ikasle mutil batek eragindako indarkeria har daiteke kontuan.

Ikastetxean detektatutako emakumeen aurkako indarkeria-kasu bat izanez gero:

- Emakumeen aurkako indarkeria-kasu baten identifikazioa edo susmoa, hori tutorearen edo ikastetxeko edozein pertsonaren aldetik izan ahal izango da.
- Zuzendaritzari informazioa emango zaio zuzenean, hitzez.
- Urgentziazko kasuetan, ikastetxea larrialdietako 112 telefonoarekin harremanetan jarriko da.
- Zuzendaritzak Orientazio Sailari edo Ikasketen Burutzari jakinaraziko dio, eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuari kontsulta egitea baloratuko dute, gerta baitaiteke zerbitzu horrek erregistratuta duen kasu bat izatea.
- Emakumeari elkarrizketa baterako deia egingo zaio, eta bertan, giro goxoa eta enpatiazkoa izanda, egoerari helduko zaio, bere intimitatea eta pribatutasuna errespetatuta. Udalaren mailan eta udalez gaindi dauden baliabideen berri emango zaio.
- **“EAI sarbide-fitxa”** (1. eranskina) beteko da eta posta elektronikoaren bidez bidaliko da Berdintasun Arlora.
- Berdintasun Arlora (psikologoa) edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzura, lehentasunezko zerbitzu gisa, sarbidea izatea erraztuko zaio.
- Emakumeak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan sartzea erabakitzen badu, zerbitzu horrek Banakako Jarduketa Plana (BJP) egingo du emakumearekin batera.
- Berdintasun Arloak deitzen dituen BJPren jarraipen-bileretan parte hartu beharko da edo eskatzen den informazioa eman beharko da.
- Kasuaren jarraipena egingo da prozesu osoan, Berdintasun Arloarekin eta inplikaturik dauden beste zerbitzu batzuekin koordinatuta.

Detekzioa 16 urtetik beherako neska baten gainekoa bada, jarraitu beharreko prozedura Gizarte Zerbitzuek ezarritakoa izango da zuzenean.



Eginkizunak

- Programetako edozeinetako –zahartze aktiboa, autonomia sustatzea eta eguneko zentroa– emakumeen aurkako indarkeria-kasuak detektatzea eta haiei arreta egokia ematea.
- Emakumeei eta haien familiei babesa eta eskura izan ditzaketen zerbitzuen informazioa ematea, edo informazio zuzena eman diezaiekeenarengana bideratzea.
- Emakumeen aurkako indarkeria-egoerak gertatzen diren familia batean elkarrekin bizi diren pertsoneri jarraipena egitea.
- Esparru sozialetik prebentzioa egiteko baldintzak ezartzea, kultura-jokaeretan aldaketak sustatze aldera eta, hartara, aurreiritziak, ohiturak, tradizioak eta emakumeak gutxiago direlako ideian oinarritutako beste edozein jardunbide errotik kentzen laguntze aldera.
- Zentroko arduradunak emakumeen aurkako indarkeriaren gaian espezializatutako prestakuntzara joango dira, baldin eta bateragarria bada beren lan-bolumenarekin eta lan-ordutegiarekin, eta Koordinazio Teknikoko Mahaian parte hartuko dute.

Prozedura

Berriozarko Iruñalde adineko pertsonen udal-zentroan emakumeen aurako indarkeria-kasuak detektatu ahal dituzte beren eguneroko jardunean. Indarkeria hori detektatu ahal dute, edo susmoren bat dutelako, edo emakumeak berak kontatu duelako.

Gainera, aukera desberdinak hartu beharko dira aintzat:

- Erabiltzaile emakume batek familia- edo gizarte-ingurunean jasandako indarkeria.
- Erabiltzaile emakume bati zentroko langile batek edo zenbaitek eragindako indarkeria.
- Langile emakume baten aurkako indarkeria.

Zentroan detektatutako emakumeen aurkako indarkeria-kasu bat izanez gero:

1. Erabiltzaile emakume bati edo zentroko langile emakume bati eragiten dion emakumeen aurkako indarkeria-kasu baten identifikazioa edo susmoa. Zentroko langileek, zuzendaritzak, jardueretako monitoreek edo zentroko edozein erabiltzailek detektatu ahal izango du.
2. Zuzendaritzari informazioa emango zaio zuzenean, hitzez.
3. Zuzendaritzak Berdintasun Arloari jakinaraziko dio eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuari kontsulta egitea baloratuko dute, gerta baitaiteke zerbitzu horrek erregistratuta duen kasu bat izatea.
4. Familiari deia egitea baloratuko da, baldin eta familia hori ez bada indarkeriaren jatorria, eta, hala bada, zuzenean inplikaturik ez dauden senitartekoei egingo zaie deia. Aurretik, familia-egoeraren balorazio sakon eta zehatza egingo da zentroaren zuzendaritzarekin.
5. Giro goxoa eta enpatiazkoa izanda, egoerari helduko zaio, bere intimitatea eta pribatutasuna errespetatuta.
6. Udalaren mailan eta udalez gaindi dauden baliabideen berri emango zaio.
7. Zentroko zuzendaritzak **“EAI sarbide-fitxa”** (1. eranskina) beteko du eta posta elektronikoen bidez bidaliko du Berdintasun Arlora.
8. Berdintasun Arlora (psikologoa) edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzura, lehentasunezko zerbitzu gisa, sarbidea izatea erraztuko zaio.
9. Emakumeak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan sartzea erabakitzen badu, zerbitzu horrek Banakako Jarduketa Plana (BJP) egingo du emakumearekin batera.
10. Berdintasun Arloak deitzen dituen BJPren jarraipen-bileretan parte hartu beharko du zentroko zuzendaritzak edo eskatzen den informazioa eman beharko da.
11. Kasuaren jarraipena egingo da prozesu osoan, Berdintasun Arloarekin eta inplikaturik dauden beste zerbitzu batzuekin koordinatuta.

Eginkizunak

- Erantzun azkarra eta urgentziazkoa ematea arreta-eskaerei, emakumeen aurkako indarkeria-kasu baten aurrean, bere agerpen edo seinaleetako edozeinetan, eustelanak eta emakumeak eta adingabeak babesteko lanak eginez.
- Jarraipena egitea jada ezagunak diren eta/edo salatuta dauden kasuei, arrisku baxu moduan identifikatu badira.
- Biktimak babestea salaketaren unetik bertatik, eta hitzartutako neurri judizialak betetzeari jarraipena egitea, hala egitea baloratzen denean, azken horien arabera.
- Jardun frogagarria bermatzen duten txostenak egitean laguntza ematea eta beste profesional batzuen lanean laguntzea (gizarte-arlokoak, arlo judizialekoak...).
- Beste polizia-kidego batzuekin eta beste baliabide publiko batzuekin (gizarte-arlokoak, juridikoak eta psikologikoak) jarduketak koordinatzea.
- Emakumeei argi eta modu ulerterrazean ematea beren eskubideen berri eta eskubide horiek betetzeko dituzten bideen berri (beren burua babesteko jarraibideak arrisku-egoeren aurrean, urruntze-neurriak ez betetzea, komunikazioa izateko debekua, eta abar).
- VIOGENen jarraipena egitea eta informazioa helaraztea Berdintasun Arloari.

Prozedura

Udaltzainek egin beharreko zeregin zehatzak hauek izango dira:

1. Emakumeen aurkako indarkeriagatiko urgentziazko kasua gertatzen bada:

- Etxebizitzara joan beharko da herritarrek abisua eman badute, edo biktimak berak edo haren senitarteko batek eman badu abisua.
- Toki fisiko bereborean biktima, erasotzailea eta familia batera egotea saihestuko da.
- Arriskuko egoera dela baloratzen bada, Foruzaingoari deitu behar zaio, Laguntza Brigadari, salatazaileak, nahi badu, deklarazioa egiteko.
- Halaber, sexu-eraso bat gertatu bada, 112 SOS Nafarroari deituko zaio.

2. Emakumearentzako informazioa.

- Bere esku dituen laguntza-baliabideen eta -zerbitzuen berri emango zaio biktimari, bai udalaren mailan eta bai udalez gaindi ere: Oinarrizko Gizarte Zerbitzua, Berdintasun Arloa, Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Taldea, Delituen Biktimen Arretarako Bulegoa...

3. Beste polizia-kidego batzuei, adibidez, Foruzaingoari eta Guardia Zibilari, laguntza emango zaie ikertzeko eta txostena egiteko.

- Indarkeria-gertakariaren informazio frogagarria lortzen saiatuko da baliabide guztiekin.
- Egon litezkeen aurrekariak idatziz jasoko dira.
- Begi-ikuskapeneko eginbideak eta biktimaren deklarazioa, ahal den guztietan, argazkien edo beste bitarteko tekniko batzuen bidez dokumentatuko dira.

4. “**EAI sarbide-fitxa**” (1. eranskina) bete eta posta elektronikoaren bidez Berdintasun Arlora bidali behar da.

5. Babes-agindua lortu denetik txosten nabarmen eta garrantzitsuak bidaliko dira Emakumeen aurkako Indarkeria Epaitegira, kasuari buruz gertaera berriak daudenean.


6. Babesteko neurri judizialei jarraipena egin behar zaie.

- Ebazpen judizialaren edukia aztertzea eta bai neurriak modu eraginkorren betetzea lortzeko daukaten eginkizunean eragin dezaketenak ere (espazio- eta denbora-esparrua, babes-agindua urratzea).
- Arrisku-egoerarako egokiak diren babes-neurriak hartzea, arrisku baxuko moduan identifikatu direnean.
- Epaitegietara joatea, egindako jarduketengatik.
- Kasuei jarraipena egiteko txostenak egitea.

7. Berdintasun Arloak kasuak koordinatzeko deitzen dituen bileretan parte hartu beharko da edo jarraipenerako eskatzen den informazioa eman beharko da.

8. Udaltzainak emakumeen aurkako indarkeriaren gaian espezializatutako prestakuntzara joango dira, baldin eta bateragarria bada beren lan-bolumenarekin eta lan-ordutegiarekin.

9. VIOGENeko informazioa eman beharko zaio Berdintasun Arloari.



Eginkizunak

- Emakumeen aurkako indarkeria-egoerak detektatzea eta arreta soziosanitarioa ematea bizirik atera direnei eta haien seme-alabei.
- Emakumeen aurkako indarkeria-egoerei erantzuna ematea, esplizituak edo susmoak izan.
- Jada ezagunak diren eta/edo salatuta dauden kasuei jarraipena egitea, guztiz errekuperatu arte.
- Jardun frogagarria bermatzen duten txostenak egitea eta beste profesional batzuen lanean laguntzea (gizarte-arlokoak, arlo judizialekoak...).
- Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzea, tratu on eta egokian heztearen bidez.

Prozedura

Lehen mailako osasun arretarako zentroek, Sexu eta Ugalketa Osasunaren Arretarako Zentroek (SUOAZ), Osasun Mentaleko Zentroek eta Nafarroako ospitale publikoek bezala, Genero Indarkeriaren aurrean Osasun Jarduketarako Protokolo Bateratuaren arabera gidatzen dute beren esku-hartzea, Osasuneko Sistema Nazional osoak aplikatu beharrekoa baita.

a) Indarkeria-seinale arinen aurrean, neurri handiagoan edo txikiagoan susmo funtsatua dakartenak, biktimek ukatu arren.

Kasua detektatu duen osasun-profesionalak (medikua, erizaina...) jarraipena emango dio.

Osasun-etxeko Gizarte Laneko Unitatearekin (gizarte-langilea) koordinatuko da, egokiena den esku-hartze profesionalaren plangintza egiteko.

Gizarte Laneko Unitatea Berdintasun Arloarekin harremanetan jarriko da, bertara bideratzea baloratzeko.

b) Erasoak agerian uzten dituzten indarkeria-seinale larrien aurrean.

Biktimek ez baditu salatu nahi gertakariak eta ez badu babes-agindua eskatu nahi, eskura dituen mekanismoak azalduko zaizkio eta bai profesionalak behartuta daudela lesio-partea Guardiako Epaitegira bidaltzera ere.

Biktima ados badago salaketarekin, osasun-zerbitzuak lesio-partea egingo du, 112 zenbakira deituko da, behar badu, eta osasun-etxeko gizarte-langileak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuari eta Berdintasun Arloari informazioa emango dio, biktimaren baimena izanda, egokiak diren babes-neurriak hartze aldera.

c) Sexu-eraso baten aurrean.

Gertuen dagoen ospitalera bidaliko da, eraso hori aurreko 72 orduen barnean gertatu bada.


72 ordu edo gehiago igaro badira, laguntza emango zaio eta lesio-partea beteko da. Irakurri egingo zaio biktimari eta kopia bat eman.

Gero, Emakumeen aurkako Indarkeria Epaitegira edo Guardiako Epaitegira bidali behar da.


Emakumea Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Taldera bideratuko da, eta Berdintasun Arloak dituen udal-baliabideen berri emango zaio.

1. “Genero-indarkeriaren arriskuaren balorazio-protokoloa” beteko da, osasun-etxean egongo den protokoloa (arrisku baxua, ertaina, altua).
2. Osasun-etxeko gizarte-langileak Berdintasun Arloko baliabide psikologikoen eta juridikoen berri emango dio emakumeari, eta haietara joatera animatuko du. Dauden gizarte-baliabideak ere jakinaraziko dizkio, eta bai haiekin koordinatzea komenigarria dela ere.
3. Gizarte-langileak, egokia dela uste badu, Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Taldera bideratu ahal du emakume bat.
4. Biktimaren erreferentziazko profesionalek (medikua, erizaina, osasun-etxeko gizarte-langilea) kasuaren jarraipena eskainiko dute (entzute aktiboa, babes emozionala, laguntza erabakiak hartzean, eta abar).
5. Gizarte-langileak **“EAI sarbide-fitxa”** (1. eranskina) beteko du eta posta elektronikoaren bidez Berdintasun Arlora bidaliko du.
6. Berdintasun Arloak deituko dituen jarraipen- eta koordinazio-bileretan parte hartuko du Gizarte Laneko Unitateak edo eskatzen zaion informazioa bidaliko du.
7. Osasun-etxeko langileak emakumeen aurkako indarkeriaren gaian espezializatutako prestakuntzara joango dira, baldin eta bateragarria bada beren lan-bolumenarekin eta lan-ordutegiarekin.
8. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitu eta gai horretan sentsibilizatzeko jarduerak egingo ditu osasun-etxeak urtero, tratu on eta egokia sustatzeko, eta barne hartuko dute profesionalentzako prestakuntza.

1. GRAFIKOA



2. GRAFIKOA



Eginkizunak

- Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakumeek dituzten osasun mentaleko beharrei erantzuna ematea.
- Zerbitzuaren arduradunak emakumeen aurkako indarkeriaren gaian espezializatutako prestakuntzara joango dira, baldin eta bateragarria bada beren lan-bolumenarekin eta lan-ordutegiarekin.

Prozedura

Osasun mentaleko zentroek, lehen mailako osasun arretarako zentroek, Sexu eta Ugalketa Osasunaren Arretarako Zentroek (SUOAZ) eta Nafarroako ospitale publikoek bezala, emakumeen aurkako indarkeria-kasuetan osasun-jarduketara egiteko protokolo bat daukate.

Berriozar herriari dagokion osasun mentaleko zentroa Buztintxuriko Osasun Mentaleko Zentroa da.

Osasun-etxeko familia-medikuak bideratu eta gero egiten da osasun mentaleko zentrorako sarbidea. Gero, hurrengo bisitak, osasun mentaleko zentrotik bertatik programatzen dira.


Emakumeen aurkako indarkeria-egoera bat identifikatu bada.

1. Emakumea Oinarrizko Gizarte Zerbitzura bideratuko da.
2. **“EAI sarbide-fitxa”** (1. eranskina) beteko da eta posta elektronikoaren bidez bidaliko da Berdintasun Arlora.
3. Berdintasun Arloak Banakako Jarduketara Planari (BJP) jarraipena egiteko deitzen dituen bileretan parte hartu beharko da edo eskatzen den informazioa eman beharko da.

Emakumeen aurkako indarkeria-egoera baten susmoa badago edo emakumeak ez badu halakotzat onartzen.

1. Indarkeria ezkutua detektatu, hari heldu eta hura tratatzean, Genero Indarkeriaren aurrean Osasun Jarduketarako Protokolo Bateratuan ezarrita dauden jarraibideen arabera jardun behar da, Osasuneko Sistema Nazional osoak aplikatu beharrekoa baita.
2. Protokolo honek susmo-adierazleak eta jarduteko plan desberdinak adierazten ditu gerta daitezkeen egoera desberdinetarako, indarkeria-egoera batean egotearen gainean emakumeek egiten duten aitortza edo onarpenaren arabera eta bai profesionalak hautematen duten arriskuaren arabera ere. Bereziki garrantzitsua da tratatu txar psikologikoa diagnostikatzea, emakumeengan beren buruari errua botatzea eragiten baitu eta babesgabetasun- eta zaurgarritasun-egoera batean jartzen baititu beste indarkeria-egoera batzuen aurrean. Detektatzeaz eta diagnostikoa egiteaz gain, era berean da erabakigarria detektatutako kasuei modu egokian heltzea.

1. GRAFIKOA



9.1. OSASUN-ETXEAN ETA OSASUN MENTALEKO ZENTROAN ARRETA ESPEZIALIZATUA EMATEKO ARGIBIDE OROKORRAK

- Berriozarko Osasun Etxeak eta Buztintxuriko Osasun Mentaleko Zentroak erreferentziazko pertsonak izendatuko dituzte (lehen mailako arreta, gizarte-lana), emakumeen aurkako indarkeriaren gaiko beste baliabide batzuekin elkarrizketak izateko. Pertsona horiek, gainera, baliabide honek erabakitzen dituen beste batzuekin batera, zentroan toki-protokoloa ezagutzeaz arduratuko dira, Osasunbideko berariazko beste protokolo batzuekin batera, zenbait kasutan aktibatzea nahitaezkoa den protokoloekin batera.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren gaian koordinaziorako izendatutako pertsonak eta/edo bizirik atera diren biktimekin esku-hartze zuzena dutenek prestakuntza espezializatua izango dute gai honetan. Koordinazioko Tokiko Mahaiak prestakuntza hartuko du urtero, eta saio horietara izendatutako pertsonak edo zentroak egoki jotzen dituenak joan ahal izango dira.
- Berriozarren emakumeen aurkako indarkeriaren gaian osasunaren eremuko baliabideetatik esku hartzen duten eta protokoloan parte hartzen duten langileen prestakuntza eta trebakuntza hasierakoa eta jarraia izango da. Bere edukien artean, prestakuntza horrek barne hartuko du emakumeen aurkako indarkeria-egoerak detektatzea, haietan esku hartzea eta haiek babestea osasunaren esparrutik, eta arreta berezia jarriko du indarkeriatik bizirik atera diren eta desgaitasuna, gaixotasun mentala, adikzioa edo beren zaurgarritasuna handitzen duten beste errealitate batzuk dituzten emakumeekin egin beharreko berariazko lanean, foru-araudiak jasotzen duen moduan. Prestakuntzaren zati moduan, osasun-langileek ere emakumeen aurkako indarkeriaren gaian osasuneko barne-protokoloen berri izango dute, eta bai emakumeen aurkako indarkeriari arreta emateko sare publikoko baliabideen eta haien espezifikotasunen berri ere.
- Emakumeen aurkako indarkeriatik bizirik atera diren emakumeek beren pribatutasuna eta intimitatea bermatuko duten tokietan itxarongo dute eta jasoko dute arreta Berriozarko osasun-etxean eta Buztintxuriko osasun mentaleko zentroan. Ahal izanez gero, bakarrik emango zaie arreta kontsultan beti edo, beraiek nahiago badute, beren konfiantzazko pertsona bat lagun dutela.
- Bizirik atera diren emakumeen seme-alabei toki bero eta goxoetan emango zaie arreta, komunikatu ahal izatea eta entzunak izatea errazten dutenetan.
- Ekidingo da arreta ematea emakumeei kontsultan bikotekideekin daudela, eta hori nahitaez bete behar da emakumeen aurkako indarkeria dagoen susmoa dagoen gutzietan.
- Bizirik atera diren emakumeei arreta ematen zaien tokian seme-alabak egotea saihestuko da.

- Emakumeen aurkako indarkeria-kasuen arretak berehalako erantzuna izango du, lehentasunezkoa, eta itxarote-zerrendak ekidinda. Osasun-eremutik luzatuko da bizirik atera diren emakumeekiko esku-hartzea haien prozesuek eskatzen duten denbora guztian, guztiz errekuperatu arte.
- Ahal den guztietan, saiatuko da mediku-azterketak mediku-langile emakumeek egitea.
- Zentroetako osasun-profesional guztiek bilatuko dute bizirik atera diren emakumeekin konfiantzako harremana ezartzea, aurreiritziak eta estereotipoak ekidingo dira arretan, eta ez dira gutxietsiko kalteak.
- Bizirik atera diren emakumeen kontaketei sinesgarritasuna emango zaie, entzun egingo dira eta ez da egiaztatuko haien testigantza erasotzailearekin. Aintzat hartuko da bikote-terapia eta familia-bitartekaritza espresuki debekatuta daudela legez, emakumeen aurkako indarkeria-kasuetan.
- Seme-alabekin egiten diren esplorazio-elkarrizketetan, haien adinerako eta garapen-etaparako egokiak diren galderak eta hizkera erabiliko dira.
- Eman behar zaien babesetik eta baliabidetik zer espero dezaketen azalduko zaie emakumeei, itxaropen faltsurik sortu gabe. Esplorazioak edo miaketak egiten diren kasuetan, bizirik atera diren emakumeei zer egingo zaien eta hori egitearen xedea azalduko zaie, eta beharrezkoa denean baimena eskatuko zaie.

9.2. BALIABIDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

9.2.1. OSASUN- ETA GIZARTE-BALIABIDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

- Osasun-esparruko baliabideetatik emakumeen aurkako indarkeriaren susmoa dagoenean, osasun-etxeko gizarte-laneko langileei jakinaraziko zaie. Arriskua baxua bada, bizirik atera den emakumea Berriozarko Udaleko Berdintasun Arloa bideratuko da, **“EAI sarbide-fitxa”** (1. eranskina) bidalita eta betiere aintzat hartuta emakumearen baimena dagoela. Behin fitxa jasota, Berdintasun Arloak egokiak diren koordinazio-bileretarako deia egingo du, beharrezkoak diren baliabideekin koordinatuta.
- Berdintasun Arloak bilera egituratuak programatuko ditu Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin, hiru hilean behin egiteko, eta bi baliabideetatik arreta ematen zaien emakumeen aurkako indarkeria-kasuei jarraipena egiteko. Osasun-etxearen eta osasun mentaleko zentroaren kasuan, bilera horien aldizkakotasuna beharren eta kasu jakinen arabera ezarriko da. Berdintasun Arloak bilera horietan parte hartuko du egokia denean, kasuaren arabera.
- Bilera egituratu horiek egiteaz gain, Berriozarko Osasun Etxearen, Buztintxuriko Osasun Mentaleko Zentroaren, Berdintasun Arloaren eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen arteko komunikazioa, koordinazioa eta elkarlana etengabea eta arina izango da.
- Berriozarko Osasun Etxeko Gizarte Laneko Unitateak edo osasun mentaleko zentroak, oro har, Iruñerriko eta Iparraldeko Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Taldera (GIBAIT) bideratuko ditu aurrez aurre duten indarkeria berriaz onartzen duten emakumeak eta/edo osasun-arloko profesionalak baloratzen duenean arriskua ertaina, altua edo muturrekoa dela, baldin eta emakumeen baimena badago. Horretarako, GIBAITekin horretarako ezartzen diren bideetatik harremanetan jartzeaz gain (telefonoa, posta elektronikoa...), bideratzea formalizatuko da, hura idatziz jasota gelditzeko, osasun-esparruko baliabideek eta GIBAITek ezartzen dituzten baldintzetan.
- Emakumeen aurkako indarkeriatik bizirik atera diren eta GIBAITera bideratzen diren emakumeei, ahal bada, Berriozarko osasun-etxean emango zaie arreta edo, batez ere, lehenbiziko hitzorduan, eta haiek hala egitea nahiago duten guztietan.
- Osasun-arloko baliabideak Iruñerriko eta Iparraldeko GIBAITekin bilduko dira, Berdintasun Arloak deia egiten dienean (sarbide-fitxak jaso eta gero) eta hala egitea baloratzen denean, baloratutako kasuen jarraipena egiteko. Horrez gain, bi baliabideen arteko komunikazioa eta lankidetzaren etengabea izango da.

9.2.2. DELITUEN BIKTIMEN ARRETARAKO BULEGOA (DBAB)

- Berriozarko osasun-esparruko baliabideek aintzat hartuko dute bizirik atera diren emakumeak bideratzeko DBAB bulegoaren izaera espezializatua, esparru judizialeko arreta osoa (arreta soziala, juridikoa eta psikologikoa) emateko baliabide gisa.
- Gainera, Berriozarko Osasun Etxeak kontuan hartuko du, kasuak bideratzeko, DBAB bulegoaren espezializazioa bizirik atera diren emakumeen seme-alabekin arreta psikoterapeutikoa ematean eta sexu-indarkeriaren agerpenetako edozeinen biktima diren emakumeekin.
- Osasun-esparruko baliabideetatik DBAB bulegora bideratuko dira borondatez eta bide anbulatoriotik genero-indarkeriako eta sexu-indarkeriako erasotzaileentzako programa terapeutikoetan, DBAB bulegoak martxan jartzen dituenetan.

9.2.3. POLIZIA-KIDEGOAK

- Urgentziazko kasuen aurrean, kasu larriak direnean eta bizi-arriskua dagoenean edo sexu-erasoa gertatzen denean, protokolo honetan parte hartzen duten Berriozarko osasun-esparruko baliabideek Berriozarko Udaltzaingoari emango diote gertatutakoaren berri. Udaltzaingoak protokolo honetan ezarritakoaren arabera jokatu du eta/edo 112 SOS Nafarroaren telefonora deituko du (telefono horretatik abian jarriko da kasu hauetarako aurreikusitako protokoloa).
- Bizirik atera diren biktimen babesa eta segurtasuna, emakumeen eta haien seme-alaben eskubidea izateaz gain, osasun-esparruko baliabideetatik egindako esku-hartzean lehentasuneko alderdia da.
- Berriozarko udaltzainek udalerrian ez dauden beste osasun-baliabide batzuetara lagunduko diete emakumeei, adibidez, Nafarroako ospitalegunera Iruñean, kasuaren arabera. Medikutratamenduak berehalakoa izan behar badu, ospitalera joatea ahalik eta azkarrena egingo da eta anbulantzian, gainera.

9.2.4. EPAITEGIAK

- Urgentziatzko egoeretan edo kasu larriak edo bizi-arriskukoak izan daitezkeenetan, osasun-eremuko baliabideetatik lesio-partea (mediku-txosten batek lagunduta) bidaliko da nahitaez Iruñeko erreferentziatzko epaitegira. Emakumeei lesio-partea horren berri emango zaie, eta ahalik eta zehatzena izango da.
- Berriozarko Osasun Etxeak lesio-partea bat egiten duenean, osasun-etxeko gizarte-langileari horren berri emango dio. Lesio-partea Larrialdi Zerbitzuan egiten denean, informazio hori osasun-etxeko gizarte-langileari emango zaio beti.
- Parteekin batera lesioen argazkiak aurkezten saiatuko da, hartara, ematen duten informazioa zehatzagoa eta kalitate handiagokoa izateko.
- Osasun-eremuko baliabideetatik, egokia denean, azalduko zaie bizirik atera direnei osasun-esparruko profesionalak behartuta daudela epaitegiei gertakarien berri ematera (era berean, susmoa dagoenean edo emakumeen aurkako indarkeria aitortzen ez denean, Ministerio Fiskalari ere jakinarazi ahal diote), kontuan izanda informazioaren konfidentzialtasuna ez dela betebeharra delitu baten susmoa dagoen kasuetan edo osasun-profesionalei deia egiten zaienean lekuko edo peritu moduan deklaratzeko.

9.3. TOKI PUBLIKOETAN GERTATZEN DEN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN JARDUTEKO PROZEDURA

Berriozarren emakumeen aurkako indarkeria detektatu, haren kontra jardun eta hura koordinatzeko protokoloaren esparruan, lehenago definitu diren zerbitzu eta/edo arlo guztietatik harago, indarkeria-egoerak edo-kasuak detektatu ahal diren tokiak barne hartu nahi ditugu.

Zehazki, zerbitzu, toki edo erakunde hauetaz ari gara:

- Berrikilan eta Usalanda.
- Gaztetxea.
- Kirol-klubak.

Leku horietan egiten diren eguneroko jardueretan, emakumeen aurkako indarkeria-egoerak gerta daitezke, eta egoera horiei erantzuna eman beharko zaie, emakumeei ahalik eta arreta onena ematen saiatuta.

Emakumeen aurkako kasu/egoera bat detektatu edo haren susmoa dagoenean jarraitu beharreko prozedura hau izango da:

1. Emakume batek indarkeria-egoera puntual bat bizi izan duela edo bizitzen ari dela jakinez gero edo haren susmoa izanez gero, zerbitzuko/erakundeko erreferentziazko pertsonari adieraziko zaio hitzez.
2. Erreferentziazko pertsona hori edo kasuaren berri izan duena harremanetan jarriko da Berdintasun Arloarekin.
3. Modu goxoan eta enpatiaz egoerari helduko zaio, emakumearen intimitatea eta pribatutasuna errespetatuta.
4. Udalaren mailan eta udalez gaindi dauden baliabideen berri emango zaio.
5. Berdintasun Arloak baloratuko du informazioa eskatzea beste udal-baliabide edo -zerbitzu batzuei, informazioa osatzeko eta arreta osoa emateko, edo, egokia bada, dagokion lekura bideratzeko.



BERRIOZARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN
JARDUTEA KOORDINATZEKO I. TOKI-PROTOKOLOA

PROTOKOLOA APLIKATZEKO ETA HARI JARRAIPENA EGITEKO TRESNAK



10

ESKU HARTZEKO TRESNAK

- EAI SARBIDE-FITXA (1. eranskina).

Emakumeen aurkako indarkeria-kasu bat detektatzen duen arloaren edo erakundearen arduradunak bete behar du eta Berdintasun Arloari bidali behar dio posta elektronikoz. Mezuaren gaien hau jarri behar da: ENTRADA VcM (EAI SARBIDEA).

- BIZIRIK IRAUN DUTEN EMAKUMEEN ERREGISTROA.

Excel tresna bat da, Berriozarren emakumeen aurkako indarkeriatik bizirik atera diren emakumeen oinarriko informazioa jasotzen duena. Berdintasun Arloak bete behar du. Emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko informazio osoa eta eguneratua edukitzea protokolo honen helburu nagusietako bat da.

Informazioa Berdintasun Arloan zentralizatuta egongo da. Gainerako arloek eta erakundeek **“EAI sarbide-fitxa”** bidaliko dute edozein kasuren aurrean eta berehala. Tresna honek, halaber, BJPren Jarraipen prozesuan sortutako informazioa erregistratzea ahalbidetu beharko du, bileretan edo kasu jakin bakoitzean inplikaturik dauden arloekin eta/edo erakundeekin ezartzen diren telefono-komunikazioetan.

Koordinazio Teknikoko Mahaiak (KTM) irizpideak eta prozedura ezarriko ditu, emakumeen aurkako indarkeriaren ezaugarriei buruzko informazio kuantitatiboa eta anonimoa partekatzeko, protokolo honetan parte hartzen duten udal-arlo eta erakunde guztietan indarkeriaren intzidentziaren, ezaugarrien, bilakaeraren eta lanketaren argazki eguneratua edukitze aldera.

Protokoloaren jarraipena egiteko urteko txostenak egiteko bidea emango du informazio honek, eta datu pertsonalak babesteko araudia beteta tratatu beharko da.

- ARRISKUAREN DETEKZIO PROTOKOLOA (2. eranskina).

Epe laburrean (6 hilabete) bikotekideak edo bikotekide ohiak emakumearen aurka indarkeria-ekintza larriak egiteko arriskua baloratu behar duen profesionalarentzat tresna erabilgarria da. Ez dago diseinatuta emakumeari zuzenean emateko galdetegi moduan.

- BANAKAKO JARDUKETA PLANA (BJP).

Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioko Genero Indarkeriarako Gobernu Ordezkaritzak, 2014an, “Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeekin, haien seme-alabekin eta beren kontu dauden beste pertsona batzuekin esku-hartze integrala eta indibidualizatua egiteko jarraibideen edo pauten proposamena” dokumentua idatzi zuen.

Hemen kontsultatu: <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/profesionalesInvestigacion/asistenciaSocial/protocolos/pdf/Punto5PropuestaPAI.pdf>

Aipatzen den moduan, BJP dokumentuak gida izan behar du esku-hartze osoan, eta talde tekniko batek egin behar du. Emakumea eta profesionalak esku hartzeko prozesu osoan kokatzeko aukera ematen du, emakumearekin adostutako eta argi definitutako helburuak bistatik galdu gabe. BJP dokumentua, adostutako helburuei dagokienez, emakumeak eta profesionalak sinatu behar dute, bi aldeek betetzeko konpromisoaren erakusgarri.

BJPren Jarraipenean Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Berdintasun Arloak eta kasuaren esku-hartzean inplikaturako arloek edo erakundeek parte hartuko dute. Berdintasun Arloa izango da Bizirik Iraun duten Emakumeen Erregistroa eguneratzearen arduraduna, une oro eduki ahal izateko informazio eguneratua.

KUDEAKETARAKO TRESNAK

- ALDIAN BEHINGO BILERAK.

Koordinazio Teknikoko Mahaiko kide guztiak urtean bitan elkartzeko dira, eta bai arrazoi justifikatu batengatik deia egiten den guztietan ere.

- BILEREN AGIRIAK EDO AKTAK.

KTMren bilera bakoitzaren agiriak egin beharko dira. Idaztea errazten duen eredu bat aurkezten da. Garrantzitsua da argi eta zehatz jasotzea bai lortzen diren akordioak eta bai proposatzen diren zereginak gauzatzeko egutegia eta ardurak.

Berdintasun Arloak bete eta erregistratu beharko ditu, eta KTM mahaiko kide diren arlo eta erakundeei helaraziko zaizkie.

- DATU PERTSONALAK BILTZEKO ETA LAGATZEKO BAIMEN INFORMATUAREN KLAUSULA.

Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren eskakizunei jarraituta, beren datu pertsonalak lagatzeko emakumeen baimen “ageri eta zalantzarik gabea” eskatu beharko da. Horretarako, bi dokumentu ditugu: “**Datu pertsonalak biltzeko informazioa**” (3. eranskina) eta “**Datu pertsonalak bildu eta lagatzeko baimen informatuaren klausula**” (4. eranskina). Emakumeak sinatu egin beharko du azken hori, bermatzen baitu une oro bete ahal izango dituela datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta aurka egiteko eskubideak Berriozarko Udalean.

PLANGINTZARAKO TRESNAK

- URTEKO JARRAIPEN-TXOSTENAK.

Koordinazio Teknikoko Mahaia (KTM) eratzen duten arlo eta erakunde desberdinek emandako informaziotik abiatuta, Berdintasun Arloak urteko jarraipen-txostena egingo du. Zehazki, txosten horrek jasoko du:

- Berriozarren emakumeen kontrako indarkeriak duen intzidentzia (salaketak, agente desberdinek arreta emandako kasuak, urgentziako esku-hartzeak, bideratzeak, zein baliabidetara bideratu diren...). Nafarroako Berdintasunerako Institutuak, polizia-salaketen erregistroaren arduraduna denez, informazio hori, arreta emandako eta bizirik irtendako emakumeei buruzkoa eta bere eskumenekoak diren baliabideetara sartu direnei buruzkoa emateko konpromisoa du.
- Protokoloaren esparruan, arloek eta erakundeek egindako prebentzio- eta sentsibilizazio-jarduketak. Jarduketa horiek Berdintasun Planean sartuko dira, eta esparru horretan bilduko da informazioa Berdintasun Planaren urteko ebaluazio-txostenean.
- Protokoloaren ondorioak edo eraginak emakumeengan eta adingabeengan eta bertan parte hartzen ari diren arlo eta erakundeetan.
- Protokolo hau sinatu duten arloen eta erakundeen eta udalez gaindiko beste batzuen artean gauzatutako koordinazio- eta bideratze-ekintzak.
- Identifikatutako hobekuntza-alorrak.

- KONTRASTE- ETA BABES-TALDEAK.

Beste espezializazio- edo adostasun-maila bat eskatzen duten gai desberdinei buruz modu sektorialean kontrastatzeko eta sakontzeko, ad hoc lantaldeak antolatu ahal izango dira. Haietan, udaleko edo udalez gaindiko (Nafarroako Berdintasunerako Institutua, Harrera Baliabideak, Foruzaingoko Laguntza Brigada, etab.) agente desberdinek parte hartuko dute. Agente horiek ez dute zertan ordezkartzarik izan KTMn, eta haien presentzia jakina eta puntuala eska daiteke. Talde hauen lanak KTMri laguntza emateko eta erabakiak hartzean aholkularitza emateko balioko du.

- BERRIOZARKO EMAKUMEEN SAREAREKIN ETA SARE FEMINISTAREKIN KOORDINATZEKO GUNEAK.

Protokolo honen xedeetako bat da emakumeek aurrez aurre duten indarkeria detektatzea eta horretan jardutea hobetzea, bai eta haien akonpainamendua eta ahalduntzea ere. Berriozarko elkarte feministek eta emakumeen elkarteek eginkizun erabakigarria dute, bereziki, laguntza-zirkuiturako zubi moduan eta emakumeen ahalduntze banakakoa eta kolektiboa sustatzen duten gune gisa. Egitura asoziatibo horren ezaugarri desberdinak kontuan izanda, Berdintasun Arloak urtero ezarriko ditu berarekin komunikatzeko eta hark parte hartzeko bideak, protokolo honetan jasotako parte-hartze printzipioak aintzat hartuta.



BERRIOZARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN
JARDUTEA KOORDINATZEKO I. TOKI-PROTOKOLOA

JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO- SISTEMA



JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-SISTEMA

1. Ezartzea eta gauzatzea

Koordinazio Teknikoko Mahaiak (KTM) jarraipen etengabea egingo dio protokoloa betetzeari, emakumeen beharren aldiari behingo ebaluazio-sistemaren bidez, arreta osorako sistemaren kalitatea hobetzeko helburuarekin. Protokolo honetan ezarritako tresnen bidez, Berdintasun Arloak informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa bilduko du, eta protokoloa ezartzeko urteko txostenean sartuko da. Txosten hori Koordinazio Politikoko Mahaiari helaraziko zaio, egoki jotzen dituen neurriak hartzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal-politika publiko eraginkor eta efizienteagoak diseinatu eta garatzea errazteko.

2. Ebaluatzea

Lehen protokolo honek indarrean lau urte igaro eta gero, edo lehenago, egoerak hala egitea eskatzen badu, bere emaitzen eta inpaktuaren ebaluazioa egingo da, eta horren helburua izango da Berriozarren emakumeen aurkako indarkeriaren agerpen desberdinen larritasunaren eta prebalentziaren argazki bat edukitzea, eta bai jardun eta koordinazio profesionalaren analisia ere, sendotu beharreko jardunbide egokiak eta hobetzeko esparruak identifikatzeko xedearekin. Protokoloaren ebaluazio-txostena egiteko ebaluazio-metodologiak metodo anitzeko estrategia bati jarraitu ahal izango dio, teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak konbinatuko dituen bati, hauek barne hartzeko aukerarekin: dokumentuen analisia, elkarrizketa erdiegituratuak eta sakonak, galdetegiak, kontaktak eta bizitza-historiak, besteak beste.

DATUEN TRATAMENDUA

Udal-arlo desberdinen eta udalez gaindiko erakunde desberdinen arteko elkarlanak eta koordinazioak berekin dakar pertsonen dagokien informazioa trukatzeko, eta informazio hori datu pertsonalak babestean gainean indarrean dagoen araudia aintzat hartuta tratatu behar da (Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa).

Arreta emandako emakumeei eta adingabeei buruzko informazioa erregistratzeak konplexutasun batzuk ditu, eta protokolo honek erantzuna eman nahi die haiei.

Protokolo honek ukitzen dituen profesional guztien jarduketan betebeharra da konfidentzialtasuna, eta, era berean, emakumeen eta neska-mutikoen eskubidea. Informazio konfidentzialtzat edo isilpekotzat hartzen da pertsona dena eta pertsonak ezagutarazia izan dadila nahi ez duena. Informazioaren izaerari buruzko zalantza edukiz gero, emakumeari alderdi hori berresteko eskatu ahal izango zaio, ahal bada idatziz, edo aholkularitza eskatu ahal izango zaio Berriozarko Udaleko datuen babesaren arduradunari.

Une oro gailenduko da emakumearen borondatea, eta bermatu behar da bere segurtasuna.

Konfidentzialtasun-konpromisoak berekin ekartzen du:

- Informazioaren erregistro konfidentziala. Erregistratzen den informazioaren xedean jakitun izan behar da, eta arretaz eta arduraz baloratu edukia eta informazioa bilduta geldituko den modua, bai eta nori edukiko duen informazio horretarako sarbide profesionala ere.
- Profesionalak beste profesional batzuei ematen dizkien informazioak mugatu egin behar ditu esku-hartzerako behar-beharrezkoak diren elementuetara, sekretu profesionala errespetatuz.
- Haien segurtasuna arriskuan jarrita, emakumeak identifikatu eta lokalizatzea ahalbidetu ahal duten datu pertsonalen pribatutasuna babestu behar da. Administrazioako langileek ere bereziki kontziente izan behar dute identifikazio-datuen konfidentzialtasuna bermatzeko beharraz.
- Ez da emakumeari buruzko informaziorik partekatuko beste profesional batzuekin hertsiki profesionalak ez diren tokietan.
- Elkarrizketetan intimitate-giroa eta errespetuzko jarrera bermatu behar da, senitartekoak edo emakumearen inguruneke beste pertsona batzuk egon gabe.
- Esku-hartze profesionalerako eman behar duen informazioaren konfidentzialtasunaren bermea eduki behar du erabiltzaileak. Zerbitzuak lan nola egiten duen azaldu behar da, eta adierazi behar zaio baimena onartzeko, errefusatzeko edo kentzeko eskubidea duela une oro, uneren batean egoki jotzen badu, indarrean dagoen araudiaren arabera.
- Erakundeko datuak babestean gaiko araudia beteko dute profesionalek, bereziki, datu sentikorrei eta espedienteak zaintzeari dagokienez (Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa).
- Emakumearen segurtasun eta osotasun fisikoa, psikologikoa eta soziala lehentasuna izango da. Sekretu profesionala urratzeko, emakumearentzat, adingabeentzat, profesionalarentzat edo beste batzuentzat aurreikus daitekeen arrisku berehalakoa ekartzen duen ohiz kanpoko egoera izugarri larria gertatu behar du.



BERRIOZARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN
JARDUTEA KOORDINATZEKO I. TOKI-PROTOKOLOA

KOMUNIKAZIOA ETA ERANTZUN PUBLIKOA



12. KOMUNIKAZIOA

UDALAREN KOMUNIKAZIOA, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN

Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean publikoki eta jendaurrean erantzuteko betebeharra dute erakundeek.

Jarraian, gaiari publikoki heltzeko gomendio batzuk zerrendatzen dira.

Emakumeen aurkako indarkeria-kasuen aurrean, Berriozarko Udalean barne-komunikaziorako esparru komuna deskribatzen da atal honetan. Puntu honetan ezartzen diren pautak edo jarraibideak bereziki udaleko politikariei zuzenduta daude, eta zentzua dute, hiru premisa hauek aintzat hartzen badira:

- A.** Informazio guztia konfidentziala izango da eta kasuan zuzenean esku hartzen duten langileek baino ez dituzte ezagutuko bizirik iraun duten biktimen edo haien erasotzaileen identifikazio-datuak, beren ardura profesionalaren arabera.
- B.** Komunikazio-ekintzak egiteari dagokionez, bizirik iraun duten emakumeen, haien senitartekoen edo gertuko baimena eduki beharko da, eta beren erabakiak errespetatu beharko dira.
- C.** Berriozarren errealitatea zein den, bertako biztanleriaren tamainak errazten baitu bizirik atera diren emakumeak eta haien seme-alabak identifikatzea. Eta horrek birbiktimizazioa ekar dezake, gertakariak anonimatuak edukitzerik ez izatean.

JARDUTEKO PROZEDURA:

Lehenik: Udaltzaingoak emakumeen aurkako indarkeria-gertakari baten berri duenean, arretaren, babesaren eta Berriozarren dauden beste baliabide publiko batzuetara bideratzearen gaian protokolo honetan deskribatu denaren arabera jokatu da. Arriskuaren balorazioa muturrekoa denean edo Udaltzaingoak, justifikatutako arrazoi desberdinengatik, hala egitea baloratzen duenean, orduan bakarrik, gertakariaren berri batera emango zaie alkateari eta Udaleko Berdintasun Zerbitzuari, biderik egokien bitartez (bilera, bide telematikoa, etab.).

Bigarrenik: gertakaria larria bada eta/edo emaitza moduan emakumearen edo haren seme-alaben heriotza bada, informazio hori berehala jakinaraziko zaie udal-politikoari, eta kasu hauetarako dagoen prozedura, aurrerago ageri dena, aktibatuko da.

Hirugarrenik: gertakaria jaietan edo aisiako toki edo ingurune batean gertatzen bada, kasu hauetarako Berriozarko Udalak ezarritako prozedura aktibatuko da.

Laugarrenik: gainerako egoeretan (udalerrian gehienak halakoak dira), honela jokatu beharko da:

- Udal-politikariek emakumeen kontrako indarkeriari lotutako gertakariren baten berri badute eta, arrazoi desberdinengatik eta beren eskumenen esparruan, udal-baliabideetatik egoera horretan nola esku hartzen ari diren jakiteko informazioa behar badute edo eskatzen badute, Berdintasun Zerbitzuarekin harremanetan jarriko dira. Udal-baliabideak kasu horri nola ari zaizkion heltzen jakinaraziko die zerbitzu horrek, bizirik iraun duten biktimen anonimatua gordeta beti eta kontuan izanda ematen den informazioaren izaera konfidentziala.
- Udal-politikariek emakumeen kontrako indarkeriari lotutako gertakariren baten berri badute, baina udal-baliabideek ez, Udaleko Berdintasun Zerbitzuarekin harremanetan jarriko dira politikariak. Zerbitzu horrek, informazioa konfidentziala dela errespetatuta eta protokolo honetan deskribatutako prozeduren bitartez, emakumeak eta haien seme-alabak arriskuan ez egoteko eta, haien baimenarekin, udal-baliabideen arreta jaso ahal izateko bide egokienak bilatuko ditu.
- Herritarrei arreta emateko zerbitzu desberdinetako langile teknikoek emakumeen aurkako indarkeriari lotutako gertakari larriren baten berri badute, berehala jakinaraziko diote Udaltzaingoari eta beharrezkoak diren udal-baliabide guztiak aktibatuko dira. Gero, protokolo honetan zerbitzuen arabera ezarrita dagoen prozedurari jarraituta jardungo da.

UDALAREN ERANTZUNA, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAGATIK HILKETAK EDO BIZIRIK IRAUN DUTEN EMAKUMEAK LARRIKI LESIONATUTA DAUDEN EGOERAK GERTATZEN BADIRA.

BERRIOZARKO UDALAREN JARRERA-HARTZE PUBLIKOA:

GAKOAK

- Udalak ez du inolako erantzun inprobisaturik emango, informazioa kontrastatu eta egiaztatu arte, horretarako hedabideek edo herritarrek eurek egiten dizkioten eskaerak gorabehera.
- Gertaeraren larritasuna eta oihartzun publikoa kontuan hartuta, pauso hori ahalik eta azkarrena bukatu beharko da, alkateak horren berri duen unetik.
- Kasu hauetan, Berriozarko Udala Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin koordinatuko da, emakumeen aurkako indarkeriagatik larri lesionatutako kasuetan edo indarkeriazko heriotza-kasuetan jarduteko berariazko protokolo bat baitu.
- Biktimen senitartekoei eta hurbileko pertsoneri Berriozarko Udalak abian jarriko dituen neurrien berri emango zaie, erantzun publikoaren zati moduan, eta haiekin adostuko dira.

- Berriozarko Udalak ekidingo du biktima bere ingurunearekin erlazionatzea edo identifikatzea ekar dezaketen informazioak ematea, intimitaterako duen eskubidea babesteko eta birbiktimizazioa saihesteko. Horretarako, eragindako/jasandako indarkeria-mota identifikatuko duten datu orokorrak baino ez dira emango, hartutako neurriak justifikatzeko beharrezkoak direnak.

KOMUNIKAZIORAKO ESPARRU-IBILBIDEA

1. Komunikaziorako Kudeaketa Mahaia eratuko da, alkateak, Berdintasun Arloak eta Udaltzaingoak osatuta. Berdintasun Arloak erakunde-adierazpenaren proposamena egingo du, eta Bozeramaileen Batzordeari aurkeztuko dio, onar dezan. Mahai hori Udalaren informazio ofizialaren iturri bakarra izango da beste erakunde- edo gizarte-agente batzuentzat.
2. Bozeramaileen Batzorderako deialdia, adierazpena onartzeko.
3. Ohiz kanpoko osoko bilerarako deialdia. Osoko bilera horretan erabakiko da arbuioa adierazteko elkarretaratze ofizial baterako deia egiten den edo Udalak beste erakunde- edo gizarte-arlo batzuek edo beste herritar batzuek antolatutako elkarretaratzeekin bat egiten duen. Halaber, Udala akusazio partikular moduan agertzen den ere erabakiko da (erabakia atzeratu ahal da, kasuaren arabera) eta bai arbuioa adierazteko zer beste ekintza-mota egingo diren (adibidez, banderak haga erdian jartzea eta zenbat denboran, izandako gertakarien arbuioa erakustea udal-webgunearen erdigunean, gaitzespen horri zabalkundea ematea sare sozialen eta komunikaziorako beste euskarri batzuen bidez, eta abar).
4. Udalerriko emakumeen elkarteekin eta kolektibo feministekin bilera egiteko ohiz kanpoko deialdia, Udalak gauzatuko dituen jarduketan gaineko informazioa emateko xedearekin.
5. Idazkaritzak erakunde-adierazpena bidaliko dio Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari, Nafarroako gainerako toki-erakundeei igortzeko, adierazpen horri atxikitzea eskatzeko helburuarekin.
6. Herritarrei eta beste erakunde batzuei mobilizatu izana eskertuko zaie (alkatea), udal-webgunearen, Facebooken eta abarren bidez.



Erakundeen erantzun zuzena bizirik atera diren emakumeei erreparazio soziala egiteko moduetako bat da.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAGATIK HERIOTZA EDO EGOERA LARRIAK DAUDEN KASUETAN JARDUTEKO IBILBIDEAREN XEHETASUNAK

- Ikerketaren ardura hartu duen eta Berriozarko Udalean presentzia duen polizia-kidegoaren bidez **gertatutakoa egiaztatu**.
- **Bizirik atera den emakumearekin eta/edo haren familiarekin, kasuaren arabera**, harremanetan jarri, elkarrizketa pertsonalizatu baten bidez:
 - Egiaztatzeko edo bermatzeko, erreferentziazko gizarte-arloko baliabideen bidez, gertakaritik eratorri ahal izan diren beharrei berehalako erantzun profesionala ematen ari zaiela (behar juridikoak, psikologikoak, baliabideei eta laguntzei buruzko informazioa, seme-alabei arreta ematea, eta abar).
 - Biktimaren edo familiaren baimena eskatzeko, udalerrriak gertatutakoari arbuioa adierazteko jarduketak egiteko (haien denborak eta egoeraren bizipena errespetatuz).
- **Udalaren ohiz kanpoko osoko bilera baterako deialdia**, emakumeen aurka gertatutako indarkeriari arbuioa adierazteko testu bat onartzeko eta gaitzespen-elkarretaratze baterako deia egiteko (edo beste batzuei atxikitzeko). Saio horretan erabakiko da Berriozarko Udala zigor-prozeduran agertzen den, herri-akzioa gauzatzeko. Erabaki horren berri emango zaio biktimari edo familiari, haren onespina edukitzeko, unerik egokienean (ez da beharrezkoa biktimaren edo familiaren baimena, herri-akzioa gauzatzeko).
- **Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin** harremanetan jarri behar da, jarduketak koordinatzeko.
- **Deialdia/atxikipena** gaitzespena adierazteko elkarretaratze batera, udal-bandoaren, taularen, webgunearen, udalerriko emakumeen elkartearen eta talde feministen eta abarren bidez. Udalbatzak onartutako gaitzespen-testua irakurri ahal izango da elkarretaratze horretan.

Gertaeraren berri eduki eta hurrengo 24 orduen barnean egingo da deialdia, baldin eta gertatutakoaren gainean informazio ofizial egiazkoa eta nahikoa bildu bada.

INTERBENTZIORAKO IRIZPIDEAK

- Berriozarko Udalak lideratuko du erakunde-erantzun publikoa, eta koordinazioa landuko da herriko talde feministekin.
- Emakumeen aurkako indarkeriari erakunde-gaitzespena adieraztea ezinbestekoa da kasu hauetan.
- Gertakarien konfidentzialtasuna eta emakumeen eta haien seme-alaben anonimotua bermatuko da beti, haiek eta haien familiek hori eskatzen dutenean.
- Hedabideetan erakusteagatik emakumeen birbiktimizazioa ekidingo da.

TESTU OFIZIALETAN HELARAZI BEHARREKO MEZUEN EDUKIAK:

- Emakumeen aurkako indarkeria testuinguruan jarri behar da, erantzunik gabe utzi ezin den giza eskubideen urraketa larri moduan.
- Gertakari horiei aipamena egin behar zaie “emakumeen aurkako indarkeria”, “indarkeria matxista”, “emakumeen kontrako indarkeria matxista” edo “indarkeria sexista” bezala.
- Beste hitz hauek erabiltzea ekidin behar da: “pasio-hilketa”, “gaitza”, “bikote barneko indarkeria”, “etxeke indarkeria”, “giza hilketa edo homizidioa”, “tratu txarrak”.
- Ez bota errua emakumeei eta ez justifikatu indarkeria inolako arrazoiengatik.
- Emakumeen jatorriari, etniari, egoera pertsonalari, familiakoari edo lanekoari buruzko informaziorik ez eman, ez eta seme-alabei buruzkoa ere, baldin badaude.



BERRIOZARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN
JARDUTEA KOORDINATZEKO I. TOKI-PROTOKOLOA

FINANTZAKETA, INTERPRETAZIOA, BERRIKUSPENA ETA INDARRALDIA



13

The number 13 is displayed in a large, bold, dark blue font. The background features a close-up of several colorful ropes (red, blue, green, yellow, purple) that are intertwined and cross over each other, creating a complex, textured pattern.

13. FINANTZAKETA, INTERPRETAZIOA, BERRIKUSPENA ETA INDARRALDIA

Lehen protokolo hau sinatu duten erakundeak berau onartzeak dakarren apustuaren eta ezartzeko beharrezkoak diren baliabideen jakitun dira, eta bai inplikaturik dauden arlo desberdinetan duen inpaktuaren jakitun ere. Hori dela-eta, Berriozarko Udalak urtero dirupartida nahikoa bideratu beharko du, protokolo hau garatzeko, ezartzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko, eta bai bertatik eratortzen diren tresnak sortzeko ere.

Urtero, Koordinazio Politikoko Mahaiak protokoloaren urteko ezarpenerako eman beharreko zenbatekoa hitzartuko du.

Protokoloa aplikatzean interpretazioari buruzko zalantzarik sortzen bada, Koordinazio Politikoko Mahaiak izango du ebazteko eskumena, eta berak egoki jotzen duen aholkularitza juridiko espezializatua eduki ahal izango du. Protokolo hau bertan parte hartzen duten erakundeetako politikariei bidaliko zaie, sinatzeko eta indarrean sartzeko.

Protokoloaren iraupena mugagabea izango da. Dokumentuan aurreikusitakoaren arabera berrikusi eta ebaluatuko da.

Goragoko esparruko lege-arau edo arau konbentzionalen batek protokolo honen edukiari eragiten badio, berau izenpetu duten pertsonak berehala egokitzeko konpromisoa hartzen dute.



Emakumeen aurkako indarkeria errotik ateratzean dagoen arduraren politikaren erakusgarri eztabaidaezin bat da oneratu eta erreparatu arte bizirik atera diren emakumeek behar duten laguntza integrala bermatzeko beharrezkoak eta nahikoak diren baliabide ekonomikoak esleitzea.

BERRIOZARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN
JARDUTEA KOORDINATZEKO I. TOKI-PROTOKOLOA

SINADURAK



14



14. SINADURAK

Raul Maiza Gonzalez jauna
Berriozarko Udala

Eva Isturiz Garcia andrea
Nafarroako Berdintasunerako Institutua

Montserrat De la Fuente Hurtado andrea
Osasunbidea

Leire Arrieta Recondo andrea
Berriozarko DBHI

Francisco Javier Vilchez Lopez
**Antsoain, Berriozar, Berriobeiti, Itza eta Txulapaingo Gizarte Zerbitzuen
Mankomunitatea**

Emma Da Costa Moure
Berriozarko Osasun Etxea



BERRIOZARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN
JARDUTEA KOORDINATZEKO I. TOKI-PROTOKOLOA

BALIABIDEAK



15. BERRIOZARREN DAUDEN BALIABIDEEN MAPA

A) ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Nafarroako Berdintasunerako Institutua

Alondegi kalea, 1-20 · 31002 · Iruña

Telefonoa: 848 421 588

www.igualdaddegenero.navarra.es

B) EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO KOORDINAZIO-UNITATEA, GOBERNUAREN ORDEZKARITZA

Emakumeenganako indarkeriaren kontrako koordinazio-unitatea

Merindadeen plaza, z/g · 31071 · Iruña

Telefonoa: 948 979 000. Faxa: 948 979 140

C) INFORMAZIO OROKORRA

- 016 telefonoa.
- Larrialdi kasuetan, 112ra bideratzea.
- Adingabeek egindako deiak ANAR haur eta gazteei laguntzeko telefonora bideratzea: 900 202 010.
- Sexu-esplotaziorako helburuekin emakumeen eta nesken salerosketarekin lotutako deiak Barne Ministerioaren telefonora bideratzea: 900 105 090.
- Entzuteko eta/edo hitz egiteko desgaitasuna duten pertsonak 016 telefonoarekin komunikatu ahal dira bitarteko hauen bidez:
- Testu-telefonoa (DTS) 900 116 016 zenbakira. Telesor zerbitzua: www.telesor.es
- Telefono mugikorra edo PDA: www.telesor.es
- Bideo-interpretazio zerbitzua: www.svisual.org

Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Taldea (**GIBAIT**)

Bidaburua kalea, 5 · 31610 · Atarrabia

Telefonoa: 848 463 850

eaifcomarcaynorte@fundaciongizain.es

Sexu Indarkeriei Arreta Integrala emateko Zentroa (SIAIZ)

Xavier Mina plaza, 31006 · Iruña · Nafarroa

Telefonoa: 848 463999

caivs@fundaciongizain.es

D) LARRIALDI-ZERBITZUAK

112 SOS Nafarroa larrialdietarako telefonoa Larrialdietako zentroa
Laguntza Juridiko Iraunkorreko Zerbitzua, urgentziazko arreta psikologikoa

E) BALIABIDE JURIDIKOAK ETA JUDIZIALAK

Epaitegia

Emakumeenganako Indarkeriaren Epaitegia Iruñeko Lehena
San Roke kalea, 4 – 2a · 31011 · Iruña
Telefonoa: 848 424 380

Beste epaitegi batzuk (administrazioarekiko auzietarako epaitegiak, instrukzio-epaitegiak, gizarte-arloko epaitegiak, zigor-arloko epaitegiak)
Epaitegi desberdinekin lotutako argibide gehiago edukitzeko, sartu hemen:
<https://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Poder-Judicial/Tribunales-Superiores-de-Justicia/TSJ-Navarra/Organos-judiciales/ch.Directorio-de-organos-judiciales.formato3/?>

Auzitegi Medikuntzako Nafarroako Institutua

San Roke kalea, 4 · 31011 · Iruña
Telefonoak: 848 424 032 / 848 424 030

Emakumeei Arreta Juridikoa emateko Zerbitzua

Iruñeko Abokatuen Elkargoa

Katalina Foixkoa erreginaren ingurabidea, 1-153 · 31002 · Iruña
Telefonoa: 948 221 475
Ordutegia: astelehen, asteazken eta ostiraletan, 16:30etik 17:00etara (10:00etatik 12:00etara, uztailen eta abuztuan).

Justiziako Gizarte Zerbitzua

Delituen biktimei arreta emateko bulegoa eta organo judizialekin elkarlanean aritzekoa

San Roke kalea, 4, beheko solairua · Justizia Jauregia · 31011 · Iruña
Telefonoak: 848 423 376 / 848 427 671 / 848 421 387

F) POLIZIA-BALIABIDEAK

Foruzaingoa Foruzaingoaren Komisaria Nagusia

Tellaiturri kalea, z/g · 31006 · Iruña

Telefonoa: 848 426 403

E-posta: pfasistencial@navarra.es

Berriozarko Udaltzaingoa

Etxaburua kalea, 1

Telefonoa: 639 400 906

Ordutegia: 24 orduetan

E-posta: policia@berriozar.es

Polizia Kidego Nazionala

Telefonoak: 091 eta 112 SOS Nafarroa

Polizia Nazionalaren Bulego Nagusia. Familia eta Emakume Unitatea (UFAM)

Chinchilla Jeneralaren kalea, 3 · 31002 · Iruña

Telefonoak: 948 299 779 eta 091 (24 orduetan)

Guardia Zibila. EMUME (Polizia Judizialaren Unitate Organikoa – Pertsonen aurkako delituen alorra)

Galizia etorbidea, 2 · 31003 - Iruña

Telefonoa: 948 296 850, 5260 luzapena eta 062 (24 orduetan)

Guardia Zibila. PAE (Polizia Judizialaren Unitate Organikoa -ETPJ Iruña)

Galizia etorbidea, 2 · 31003 - Iruña

Telefonoa: 948 296 850, 5205 luzapena eta 062 (24 orduetan)

Udaltzaingoak eta tokiko poliziak

Telefonoak: 092 eta 112 SOS NAFARROA

G) GIZARTE-ARRETARAKO BALIABIDEAK

Berriozarko Udalaren Arreta Psikologikoa eta/edo Juridikoa

Telefonoa: 948 301 631
igualdad@berriozar.es

Emakumeei Arreta emateko Udal Zerbitzua, Iruñeko Udala (SMAM).

Marcelo Celayeta etorbidea, 51, behea (La Carbonilla eraikina)
31014 · Iruña
Telefonoa: 948 420 940
Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era

Antsoain, Berriozar, Berriobeiti, Itza eta Txulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea

Kaleberri, 12 · 31013 Berriozar
Telefonoa: 948 30 00 07
Arretarako telefonoa: astelehenetik ostegunera, 08:00etatik 19:00etara; ostiraletan, 08:00etatik 17:00etara

Harrera-baliabideak:

Larrialdi-zentroak, 112 SOS Nafarroa telefonoa
Arreta eguneko 24 orduetan, urteko egun guztietan

H) OSASUN-BALIABIDEAK

Berriozarko osasun-etxea

Kaleberri kalea, 7
31013 Berriozar
Telefonoa: 948 309 404. Ordutegia: 08:00etatik 20:00etara

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua. Lehen arreta.

Bake plaza, z/g
31002-Iruña.
Telefonoa: 848 429 300

Nafarroako Ospitalegunea

Irunlarrea kalea, 4
31008-Iruña
Telefonoak: 848 422 222 / 848 429 400



BERRIOZARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN
JARDUTEA KOORDINATZEKO I. TOKI-PROTOKOLOA

ERANSKINAK



EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA (EAI). SARBIDE-FITXA

1. ERANSKINA



Ayuntamiento de Berriozar
Berriozarko Udala

EAI SARBIDE-FITXA

Arloa/Erakundea:

Arreta eman duen profesionala:

EMAKUMEAREN DATUAK	HASIERAKOAK	Jakinarazpen-eguna		
	Urteko lehen arreta	BAI	EZ	
	Arreta-kopurua hiruhilekoan			
	Jaiotza-urtea	Adin-tartea		
	Jaiotza-herrialdea			
	Bere kontu dauden pertsonak (kop. eta adinak)			
	Bere diru-sarrerak ditu			
	Babes-sarea			
ESPARRUAK ETA HARREMANA ERASOTZAILEAREKIN	Harremana erasotzailearekin	BAI	EZ	
	Gunea	Fisikoa	Birtuala	Biak ala biak
	Esparrua (kirolekoa, komunitarioa, aisialdikoa, hezkuntzako, familiakoa, instituzionala, lanekoa, osasunekoa...)			
BABES JUDIZIALA	Salaketa			
	Babes-agindua			
INDARKERIA-TIPOLOGIA	Fisikoa			
	Psikologikoa			
	Sexuala			
	Ekonomikoa			
	Soziala			
	Bikarioa			
	Instituzionala			

ARRISKUAREN DETEKZIO PROTOKOLOA

2. ERANSKINA

Hemendik hartua: Protocolización de la intervención individualizada con mujeres que viven o han vivido violencia de género del Ayuntamiento de Barcelona, 2007.

Profesionalarentzako oharra: protokolo hau ez dago diseinatuta emakumeari zuzenean emateko galdeketa moduan. Epe laburrean (6 hilabete) emakumearen aurka bikotekideak edo bikotekide ohiak indarkeriazko ekintza larriak egiteko arriskua baloratu behar duen profesionalarentzako tresna erabilgarria da.

Komenigarri jotzen den ordenan egin daitezke galderak, baina beti saihestu behar da emakumearen erantzuna eragitea. Profesionalak bete behar ditu datuak, esplorazio edo miaketatik lortzen duen informaziotik eta emakumeak ematen dionetik abiatuta, eta, baldin badago, beste informazio-iturri batek ematen dionetik (beste zerbitzu batzuk, dokumentazioa, eta abar).

Emakumearen aurkako bikote-indarkeriaren arriskua baloratzeko protokoloa.

Espediente zk./Historia zk. OGZ:		Balorazio-eguna:	
Emakumearen izen-abizenak:			
NAN/AIZ/Pasaportea:		Jaioteguna:	

BIKOTEKIDEAREN EDO BIKOTEKIDE OHIAREN INDARKERIAZKO JOKAERAREN HISTORIA		BAI	EZ	EZ DA EZAGUNA
1	Emakumearenganako edo aurreko bikotekideenganako erasoak edo indarkeria fisikoa eta/edo sexuala azken 18 hilabeteetan			
2	Beste pertsona batzueganako erasoak edo indarkeria, familiakoak (seme-alabak edo beste batzuk) izan edo ez			
3	Erasoak emakumeari haurdun zegoenean			
4	Bikotekiderarengako/Bikotekide ohiarenganako indarkeriatik polizia-aurrekariak/aurrekari judizialak (egungo bikotekidea edo beste bikotekide batzuk aurreko gertaeretan)			
5	Emakumea babesteko neurri judizialak urratu ditu erasotzaileak			
MEHATXUAK EDO ABUSU LARRIAK EMAKUMEAREN AURKA		BAI	EZ	EZ DA EZAGUNA
6	Emakumeak bere integritate fisikorako mehatxu larriak eta sinesgarriak jaso ditu, armak erabilia edo ez			
7	Emakumeak abusu emozional eta hitzezko larria pairatu du azken 6 hilabeteetan			
INGURUABAR ASTUNGARRIAK		BAI	EZ	EZ DA EZAGUNA
8	Emakumeak esan dio ustezko erasotzaileari banandu egin nahi duela edo sei hilabete baino gutxiago igaro dira banandu direnetik			
9	Azken sei hilabeteetan, handitu egin da indarkeriazko gertaeren maiztasuna edo larritasuna			
10	Ustezko erasotzaileak droga eta/edo alkohol gehiegi hartzen du			
11	Ustezko erasotzaileak gaixotasun mental gogorraren diagnostikoa edo historia du			
12	Ustezko erasotzaileak armak ditu edo erraz eskuratu ahal ditu			
13	Ustezko erasotzailea bere buruaz beste egiten saiatu da edo horretarako ideia izan du			
14	Emakumearen ekintzak muturreraino kontrolatzen ditu jelskortasunarengatik edo antzekoengatik			

ARRISKUAREN DETEKZIO PROTOKOLOA

2. ERANSKINA

EMAKUMEAREN ZAURGARRITASUN-FAKTOREAK		BAI	EZ	EZ DA EZAGUNA
15	Emakumearen bakartze soziala eta/edo baliabide pertsonalen eza, eta/edo emakumeak justifikatu egiten du ustezko erasotzaileak duen indarkeria, eta/edo seme-alaba adingabeak daude eta/edo emakumearen mende daudenak			
EMAKUMEAK ARRISKU-EGOERAZ DUEN PERTZEPZIOA				
16	Emakumeak uste du ustezko erasotzailea bera hiltzeko gai dela, pertsonalki edo beste pertsona batzuen bidez			
BAIEZKO ERANTZUNEN BATURA/ARRISKUAREN BALORAZIOA				
"EZ DA EZAGUNA" GUZTIRA ³				
ARRISKU BAXUA (baiezko erantzun 1 eta 7 artean)				
ARRISKU ERTAINA (8 baiezko erantzun eta 9 artean)				
ARRISKU ALTUA (10 baiezko erantzun eta 16 artean)				
Emakume honek bizi duen arriskua baloratzeko beste faktore giltzarri batzuk eta aurreko zerrendan ageri ez direnak (zerrendatu baina ez puntuatu)		BAI	EZ	EZ DA EZAGUNA
Haurdun dago balorazio hau egiteko unean				
Bikotekideak edo bikotekide ohiak bera hiltzeko asmoa duelako zantzuak daude				
Beste batzuk (zehaztu):				

ARRISKUAREN BALORAZIOA

Profesionalak aurreko ataletatik abiatuta egingo du arriskuaren balorazioa (lortutako puntuazioa, informaziorik gabeko arrisku-faktoreen kopurua eta balorazio honetarako garrantzitsuak diren beste arrisku-faktore batzuk egotea).

ARRISKU BAXUA		ARRISKU ERTAINA		ARRISKU ALTUA	
----------------------	--	------------------------	--	----------------------	--

INTERESEKO OHARRAK
EGUN DAGOEN ARRISKUAREN BALORAZIOAREN ARABERAKO JARDUKETA
ETORKIZUNEAN ARRISKU-MAILA HANDITU AHAL DUTEN ETA AURREIKUSTEKOAK DIREN INGURUABARRAK (ALERTA) (Adibidez: erasotzailea espetxetik aterako da, erasotzailea jatorrizko herrialdetik edo beste toki batetik itzuliko da, eta abar)

BALORAZIOA EGIN DUEN PROFESIONALA

Izen-abizenak edo identifikazio-zenbakia	
Helbide elektronikoa	Telefonoa

* Balorazio hau erabilgarria izango da, 7 arrisku-faktoreri edo gehiagori buruzko informazioa badago. Gainerakoan, gomendatzen da behin betiko baloraziorik ez egitea aipatutako arrisku-faktoreen kopuru gutxieneko hori osatu arte.

Emakumeari jakinaraziko zaion informazioa:

1. Emakumearen eta/edo adingabeen datu pertsonal anonimizatuak Berriozarko Udalaren fitxategian sartuko direla eta arreta osoa emateko xedearekin tratatuko direla.
2. Informazio hori Berriozarko Udaleko arlo desberdinek tratatu ahal dutela (Berdintasuna, Gizarte Zerbitzuak, Udaltzaingoa, Udaleko Aholkularitza Juridikoa, Gazteria, adingabeen kasuan, eta abar). Edonola ere, arreta osoa emateko beharrezkoak diren arloek baino ez dute tratatuko.
3. Informazio estatistikoa Berriozarko Udalaren Berdintasun Arloko titulartasuneko erregistroan sartuko dela, datu objektiboetan oinarritutako politika publikoak egiten laguntze aldera, eta estatistikako eta ikerketako xedeetarako erabili ahal izango dela.

DATU PERTSONALAK BILDU ETA LAGATZEKO BAIMEN INFORMATUAREN KLAUSULA

4. ERANSKINA

..... andreak,
..... NANA/pasaportea/bizileku-baimena/beste identifikazio-
dokumentu bat dudanak, dokumentu honen bidez, idatziz jasota utzi nahi dut berriaz
Berriozarko Udalak dituen datuen tratamenduaren berri eman didatela:

1. Berriozarko Udalak nire datu pertsonalak fitxategian sartuko ditu eta tratatu egingo ditu, arreta osoa emateko xedearekin –emakumeen aurkako indarkeriari aurre egin behar diogun pertsonoi arreta emateko–, bai niri eta bai nire mende dauden pertsoneri.
2. Informazio hori Berriozarko Udaleko arlo desberdinek tratatu ahal dute (Berdintasuna, Gizarte Zerbitzuak, Udaltzaingoa, Udaleko Aholkularitza Juridikoa, Gazteria, adingabeen kasuan, eta abar). Edonola ere, arreta osoa emateko beharrezkoak diren arloek baino ez dute tratatuko.
3. Nire datu pertsonalak beste erakunde batzuei, publikoak edo pribatuak izan, jakinarazi edo laga ahal izango zaizkie, arreta osoa emateko xedearekin, bai niri eta bai nire mende dauden pertsoneri. Emakumearen eta/edo adingabeen segurtasun eta integritate fisikorako, psikologikorako eta sozialeko arriskuak daudenean, lagatze hau nahitaezkoa izango da. Datu hauek erakunde edo zerbitzu hauei jakinarazi ahal izango zaizkie:
 - a. Nafarroako Berdintasunerako Institutua.
 - b. Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Taldea (GIBAIT).
 - c. Emakumeei Arreta Juridikoa emateko Zerbitzua.
 - d. Foruzaingoa (Laguntza Brigada).
 - e. Delituen Biktimen Arretarako Bulegoa (DBAB).
 - f. Epaitegiak.
 - g. Osasun-etxea.
 - h. Ikastetxea.
4. Informazio estatistikoa Berriozarko Udalaren Berdintasun Arloko titulartasuneko erregistroan sartuko da, datu objektiboetan oinarritutako politika publikoak egiten laguntze aldera, eta estatistikako eta ikerketako xedeetarako erabili ahal izango da.
5. (Adingaberik badago). Nire alaba/semea 14 urtetik beherakoa izanda, nire baimena ematen dut ama/tutore gisa haren datu pertsonalak jasotzeko eta aipatutako erakundeei lagatzeko, datu horiek tratatzea baimenduz aipatutako eragin eta xedeetarako.
6. Baimen hau emateari ezezkoa emateko eskubidea dut, eta ezezko horrek izan ditzakeen ondorioen berri eman didate.
7. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta haiei aurka egiteko eskubideak gauzatu ahal ditut Berriozarko Udalean, bertako bulegoetara edo egoitza elektronikora jota.

Eta idatziz jasota gera dadin eta beharrezkoak diren eraginak izan ditzan, agiri hau izenpetu dut*, egunean.

Emakumearen sinadura.

Emakumeari lagun egin dion pertsonaren nortasuna eta sinadura, bera bertan egotearen arrazoia idatziz jasota.

*Dokumentuaren kopia bat egin beharko da behin sinatuta, datu pertsonalak lagatzeko markatutako aukerak erakusten dituen atzealdea barne hartuta.

